



Kinto garai berean

Zortzi herritan kinto ospakizunak izanen dira / 14-15



Mozorrotuta gozatzera

Herri eta hiri ihoteak ospatuko dira asteburuan eta asteartean makina bat herritan / 09-13

Urretxindorra
proiektuaren bidez
unibertsitateko ikasleak
gaztetxoeren mentore
bihurtzen dira / 2-3

Altsasuko auziaren
berri emateko
Nafarroan barnako
bira antolatu du
herriak / 7

Jabetza kolektiboa
sustatzeko gune
askea sortu dute
Irurtzunen, etxea
okupatuz / 6

Fernando Urra
Espainiako
Supermotard
txapelketako master
txapelduna / 19

Bardoak bertso
ekimenaren barruan
Sakana Zart
Lakuntzan neurtuko
da gaur, 20:00etan / 23

Eraikuntza eta etxebizitza
GEHIGARRIA

Martxoak 23

Etxerako behar dituzun irtenbide guztiak

Eskatu zure iragarkia **martxoaren 9a baino lehen**
publi@guaixe.eus • 948 564 275 • publizitatea@guaixe.eus



Iker Arregi Alegria, Ane Bañasco Ekiza eta Saioa Galartza Mozo. ERKUDEN RUIZ BARROSO

"Haur baten erreferentea izatea oso polita da"

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Urretxindorra proiektuan hiru gazte lakuntzarrek parte hartzen dute. Hiru haurren mentoreak edo aholkulariak dira.

Erkuden Ruiz Barroso

Urretxindorra proiektua duela sei urte jarri zuen martxan Nafarroako Unibertsitate Publikoak. Proiektuan unibertsitateko ikasleek parte hartzen dute, eta gizarteratzeko edota jarrera arazoak dituzten haurrak laguntzea du helburu. "Haur baten mentoreak gara. Haien lagun bihurtzen gara". Iruñean hasi ziren, baina Nafarroako hainbat herritara zabaldu da proiektua, baita Sakanara ere. Lakuntzan hiru gazte ari dira proiektuan parte hartzen: Iker Arregi, Saioa Galartza eta Ane Bañasco.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikaslea izatea, bigarren mailatik aurrera ikasten egotea eta gogoak izatea. Horiek dira Urretxindorra proiektuan parte hartzeko bete behar diren baldintzak, hiru lakuntzarrek

azaldu dutenez. Arregi Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradua ikasten ari da, Galartza eta Bañasco Haur Hezkuntza gradua. Hirurak laugarren mailan daude. "Haurrekin gaudenez hezkuntza arlora bideratuta dagoela pentsa daiteke, baina edozein ikasle parte har dezake".

Erreferentek

Ikastetxean jarrera arazoak dituzten haurrak, afektibitate falta dutenak, edota etxean arazoak dituztenak, "proiektuan parte hartzen duten haurren artean denetarik dago. Askok ez dute erreferente heldu bat". Hortaz, gizarteratzeko zailtasunak dituzten haurrak dira, lakuntzarren kasuan Marokotik etorritako haurrak dira. Hamaika eta hamalau urte bitarte dituzte. Arregi, Galartza eta

Bañascoren zeregina da haur hauek kalera ateratzea, norbaitekin denbora pasatu ahal izatea eta konfiantzazko pertsona bat izatea: "haien mundutik ateratzea".

"Haur baten mentoreak gara. Haiekin ateratzen gara lagunik ez dutelako, koadrilarik ez dutelako. Beraz, gu haiekin ateratzen gara eta hainbat ekintza egiten ditugu". Lakuntza ezagutzeko paseoak, frontoian jolastera joaten dira, lagunekin biltzen dira... Autoa hartzeko eta irteerak egiteko baimena dute, hortaz, Iruñera bolerara edo zinemara joan dira noizbait, baita Ziordiko kobazulora ere. Erreferente bat bihurtzen dira: "Haiek gustura sentitu behar dira".

Hezkuntzatik haratago dagoen proiektu bat da. "Helburua ez da etxerako lanak egiten laguntzea edo ikasten dauden bitartean haiekin egotea. Haiekin denbora libre pasatzea datza proiektua. Etxetik ateratzea eta ongi pasatzea". Hala ere, modu puntualetan etxerako lanak egiten laguntzen diete, haiek eskatzen badute. "Baina badakite ez gaudela horretarako, fabore moduan eskatzen badigute laguntzen diegu". Lagunak dira, ez irakasleak. Gainera, euskaraz hitz egiten dute. "Gurekin euskaraz hitz egiteko ohitura hartu dute. Agian lagunekin gaztelaniaz ari dira eta gurekin hitz egitera etortzen direnean euskarara aldatzen dira".

Urretxindorra proiektua Lakuntzan

Iruñetik Lakuntzara zabaldu da Urretxindorra proiektua, baita Nafarroako hainbat herritara ere. Txingurriye ekimenari esker iritsi da Nafarroako Unibertsitate Publikoak proiektua Sakanara. Txingurriye Lakuntzako etorkinak hezkuntza arloan laguntzeko proiektu bat da. Bi proiektuak harremanetan jarri ziren eta Urretxindorra proiektuan parte hartzeko aukera azaldu zen.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com





Etxe pasiboetarako egokia



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Haurrak baziren, baina mentoreak behar ziren. Ane izan zen urratsa eman zuena: "Irakasle batek galdetu zidan ea interesa nuen, eta mentore gehiago behar zirela. Saioan pentsatu nuen Haur Hezkuntzako ikaslea zelako ere eta hurrekin zerikusia duenez bideratuago dagoelako. Hitz egin genuen eta Ikerrek ongi eramango zuela pentsatu genuen". "Ez du enpresarekin zerikusirik, baina oso interesgarria iruditu zitzaidan". Iker Arregiren hitzak dira, izan ere, hezkuntza arlotik urrun dagoen ikasketak egiten ari da. "Gogoak izan behar dituzu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikaslea izatea, bigarren mailatik aurrera egotea eta ikastaro bat egitea dira eskatzen diren baldintzak. Aurretik mentoreak izan daitezkeen edo ez jakiteko elkarrizketa bat pasa behar dute. Hamabost mentore daude aurten Nafarroan. "Kupoa dago, baina normalean ez dago parte hartzeko arazorik".

Proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko eta mentoreen lana nola doan jakiteko aplikazio bat erabili behar dute. Nafarroan lehen aldiz erabiltzen ari dira aplikazioa. Bertan, hurrekin elkartzen diren bakoitzean zer egin duten, nola sentitu diren, eta zerbait berezia gertatu den jarri behar dute. "Proiektuak ematen duena ezagutzeko da, gehienbat. Gure beharrak ezagutzeko eta gu laguntzeko modu bat. Noizbait zuzendariak deitzen digu, baina ez dago inor gure atzean". Antolatzen dituzten jarduerak baita irteerak ere haien esku daude. Urretxindorra proiektuan lastailean hasi ziren eta maiatza arte parte

"HELBURUA EZ DA ETXEKO LANAK EGITEN LAGUNTZEA. ETXETIK ATERA ETA ONGI PASATZEA DA"

HAURRENDAKO EZ EZIK, MENTORENDAKO ESPERIENTZIA "OSO POLITA DA"

hartuko dute. Astean bi edo hiru orduz bildu behar dira hurrekin, gehienetan asteburuetan.

Garapena

"Hasieran oso isilak ziren eta seiak gelditzen ginen jende gehiagoren artean egoteko. Baina denborarekin konfiantza hartu dute eta gauzak kontatzen dizkizute: familiako gauzak, lagunekin nola egon diren...". Aurrerapausoak eman diren arren oraindik geratzen dela aitortu dute Lakuntzako mentoreek.

Haurrendako ez ezik, mentoreendako esperientzia "oso polita" dela diote. "Beste kultura batekoak direnez kultura hori ezagutzeko aukera eman digu: zer nolako harremanak dituzten". Hala ere, ulertzen dute ez dutela hemengo kulturaren sartu behar, baizik eta bere kultura ulertu behar dutela. Enpatia ere landu dute. "Bere lekuan jartzen zara, izan ere, beste herrialde batean jaio da eta hona etorri behar izatea bortitza izan da haiendako. Bere lekuan jartzea eta zaila izan dela ikustea..."

Esperientziari esker aurreiritziak alde batera utzi dituzte. "Pertsona bat ezagutzen duzunean konturatzen zara gauza asko ditugula komunean eta elkarrekin ongi pasatzen duzula. Gauzak kontatzen dizkizu: gaur gaizki nago hau pasatu zaidalako eta kontatu nahi nizun..." Konfiantzazko harremanak sortzen dira. "Norbaiten erreferentzia zu izatea oso polita da".

Lakuntzatik Sakana osora

Urretxindorra proiektua Sakana beste herrietara zabaltzeko aukera dagoela uste dute Lakuntzako hiru mentoreek. "Nahi izatea da gakoa". Edozein herrikoek parte hartu nahi badute, proiektuaren zuzendariarekin harremanetan jarri baino ez dutela uste dute.

Hainbat erkidegoetan antolatzen dute Urretxindorra proiektua, izen berarekin gainera; hala ere, Nafarroako mentoreek ez dute harremana haiekin. Proiektuan parte hartzeagatik hiru kreditu lortzeko aukera badute ere, azaldu dutenez inork ez ditu eskatzen. Jarduerak antolatu ahal izateko eta bidaiak egin ahal izateko diru-laguntza jasozten dute.



Jentiltroniks eta Elektrodinamiks talde urdiaindarreko kideak Iruñean domekan. UTZITAKOIA

Seigarrenez Firts Lego Leaguen

Urdiaingo bi taldek parte hartu zuten Iruñean domekan jokatu zuten zientzia topaketan. 18tik 5. eta 9. postua lortuz, egindako lanarekin pozik bueltatu ziren

Firts Lego League ekimenak 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutilen artean zientzia, teknologia eta balioak sustatzen ditu. Nafarroan 10 urte bete ditu aurten ekimenak. Iruñean igandean jokatu da aurtengo edizioa. 27 talde, 210 haur baino gehiagok parte hartu dute ekimenean. 10 eta 16 urte artekoen mailan 18 talde aritu ziren horien artean Urdiaingo eskola publikoko Jentiltroniks eta Elektrodinamiks. Aurrena Altsasu institutuko eta Iñigo Aritza ikastolako 12 urteko 9 neska-mutikok osatu zuten. Bigarrena, berriz, institutuko 14 urteko lau ikaslek.

Zientzia, teknologia, ingeniaria eta matematika bokazioak sustatu nahi ditu. Aldi berean, talde lana, proiektua lan egitea, komunikazioa, errespetua, erabakiak hartzea eta gizarte ekarpena gaitasunak sustatu nahi ditu. Urdiaindarrek parte hartu zuten mailan, Hydro Dinamiks, talde bakoitzak epailearen aurrean hiruna aurkezpen egin behar zituzten: FLL edizioan eta torneoan jasotako balioak, ura-

ren zikloaren inguruko konponbide berritzailea ematen zuen proiektu zientifikoa eta agindutako hiru egitekoak betetzeko robot bat diseinatzea eta programatzea.

Urdiaindik eramandakoa

Lau hilabeteko prestaketaren ondoren joan ziren urdiaindarrek Iruñera. Oihan Goikoetxeak, Elektrodinamiks taldeko kideetako batek, eraman zuten proiektua azaldu digu: "etxeetan ur asko erabiltzen da eta zati bat ez dago oso zikina, xaboa besterik ez. Baina den-dena araztegiara eramaten da. Hori oso garestia da. Guk konketa eta dutxan sortzen den ur gris hori jaso, etxean bertan araztu eta bertan berreraikitzea proiektua aurkeztu genuen".

URDIAINGO BI TALDEEK LAU HILABETEZ EGINDAKO LANA AURKEZTU ZUTEN IRUÑEAN

Gaztetxoaren bozeramaile Aingeru Goikoetxeak, berriz, azaldu digu uraren-goi-horniduran egon daitezkeen ur ihesak detektatzeko konponbidea opatu zutela. Hau da, "urtegitik biltegiaraino hodiaren gainetik robot bat pasako litzateke eta hark atzemanen luke ihesa eta GPS bidez kokatu". Horretarako, gaur egun erabiltzen diren bi teknikek bat egin dute.

Aldi berean, Emakumeak eta Neskatoak Zientzian Nazioarteko Eguna ospatu zuten. Talde bakoitzak bere standean neskek zientzietan aritzera animatzen zituzten posterrak jarri zituzten. Aurkezpenen gelak ere gaur egungo emakumezko zientzialarien izen-abizenak zituzten.

Torneoari dagokionez, Fsin-genium Team izan zen Nafarroa estatuko txapelketan ordezkatu duena. Oihane azaldu digunez, txarretik onera egin zuten proban eta lortutako emaitzarekin pozik gelditu dira. Ekimenean parte hartzen 6. urtea dute eta ez dakite hurrengoan segituko duten.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Txori bete hego (Joxan Artze in memoriam)

Urtarrilean joan zitzaigun Joxe Antonio Artze, usurbildar sortzaile handia, "Ez dok hamairu" taldearen hasmentako partaide eta kultur eragile errepikaezina dugu Artze. Anaiarekin batera Txalaparta baseritik plaza, agertoki eta grabazio-estudioetara ekarri bazuen ere, Joxan ez zen oso ageriko plazagizon suertatu. Haren olerkiak kantari ospetsuen bidez zabaldu ziren, halako modez non *Txoria txori*, *Txori ttikia nintzelarik* edo *Gure bazterrak* bezalako aleak euskal pop kulturaren "hit parade"an dauden ezabaezin eta masa-kulturaren tinko ezarriak. Makina bat txoko eta tabernatan ikusgai den "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek..." sententzia ere Artzeri dagokio.

Europako kontrakulturaren nektarra euskal letretara eta musikara isuri zuen poeta eklektiko honek, molde ausart, sakon eta gordinetan, euskararen soinu-hotsetan arakatuz, mota guztietako dekonstruzioak aurkeztuz, forma berriak espekulaziorik gabe landuz, irudi

indartsu zein iradokitzaileak osatuz betiko. Halaber, Altsasarekin duen lotura ez dugu ahaztekoa, Agustin García Aziluk Arrano beltza poema antikolonial eta existentzialistaren gainean polifonia esperimentalean zinez goimailakoa den obra ondu baitzuen.

Artzeren eboluzioa etengabea eta gaitza

izan zen, hippy-en ildotik mota askotako askatasunak sendo aldarrikatetik, sinismen katolikora itzultzeraino, zorabiozko joan-etorriko bidaian. Sobra ere, heldu garaian etxean zeuzkan bere hainbat liburu erre zituen, horra bere baitan gertatu zen eboluzioaren emaitza. Izan ere, Artze aringarri eta aitzakia gutxiko sortzailea genuen, eta ideiak eta bizipenak sentitu bezalaxe islatzen zituen, modari edo errazkeriari tokirik utzi gabe.

Baina lerroalde hau ederrez amaitzeko Isturitzetik Tolosan barru liburuko bertso batzuk ken diezazkiodan: "ixil turutak/ bare arnasak,/ begiak dirdir/ eskuak dardar/ bizitzaren semeak/ gaur osatu dirade".

HARA ZER DIEN

Sakrifizioguneak

HIRU MUGAK BATERA PLATAFORMA

Apaxcon (Mexiko), Holcim zementugilearen filial baten aurkako borroka luze eta latza burutu da. Bere instalazioetara sarrera ixten zuen kanpaldiak bi urte iraun zuen, azkenean joanarazi zuten arte.

Testuinguru eta hiri horretan egin zen joan zen urte amaieran Errausketaren aurkako Nazioarteko Hirugarren Topaketa, eta bertan, Europako eta Ameriketako erakundeek parte hartu zuten. Topaketa esperientziak partekatze, estrategiak berrikusteko eta zero zabor helburu duten hondakin planak indartzeko baliatu zuten.

Era berean, jardunaldiek ere balio izan zuten azaltzeko nola ekonomikoki eta sozialki gutxi garatutako herrialdeetan, gobernuak eta zementugileek ez duten batere lotsarik errentagarria zaien edozer nolana errausteko. Ez dituzte erabili behar hemen erabiltzen dituzten

amarruak, eta horrela, gobernuak itunak sinatzen dituzte zementu-fabrikekin hirigune handietako milaka eta milaka tona hondakin erretzeko.

Amiantoarekin gertatutakoaren antzekoa errepikatzen da berriz. Hemen minbizi eragile zela ikusi zenean, enpresariak, beraiek ezer ez zekitelako esan zuten eta Indiara eta hirugarren munduko beste herrialde batzuetara eraman zuten, oraingo eta bertako jendeak minbiziaren ondorioak jasan eta kontzientzia hartu arte behintzat, han azalpenik eman beharrik ez dagoelako.

Eta ildo horretatik, kezka sortu du Txinak hondakin inportazioari ezarritako bat-bateko murrizketak, besteak beste mundu osoko 7,3 milioi tona plastiko, eta horrek mundu mailan ekarriko duen hondakinen geopolitika aldaketa, errausketaren aldekoak aprobetxa dezaketen egoera, bestalde.

Topaketak beste kontzeptu interesgarri bat plazaratzeko ere balio izan du. Badira Mexikon, han "sakrifizioguneak" deitzen dituztenak, azpiegitura arriskutsu eta osasunerako eta ingurunerako jarduerak kaltegarriak pilatzen diren guneak, eta horrek, sortutako kutsadura maila dela eta, eremu horiek berriz lehengoratzea ezinezkoa bihurtzen du. Ez al zaigu hau Sakanan ezaguna egiten? Nafarroako planta kutsatzaileenetakoa den zementu-fabrika bertan kokatzeaz gain, hondakin errauskailu bihurtzeko etengabe mehatxuapean bizi gara, eta hori gutxi balitz, AHT proiektu-a eta linea elektrikoa ere hor ditugu.

Halakoak plazaratzea gehiegikeria dela pentsa liteke, baina hainbeste proiektu txikitzaile eta kaltegarri, eta denak gure eskualdean pilatzeak zer pentsatua ere ematen du.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).

GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak:

egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

ZUZENKETA

Olatzagutiko kintoen zerrenda ematean okertu eta Pablo jarri genuen Raul Granado beharrean. Bestetik, Altsasuko Zortzikoa erakusten duen irakaslearen bigarren abizena gaizki eman genuen, zuzena Txetxo Claver Borrega baita.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa

kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Diabetesa dutenendako Paziente Eskola

Gaitz horren 2. mota duten pertsonen gaitasun berriak hartzeko balioko du martxoko lantegiak

IRURTZUN

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eskutik, Pazienteen Eskola lantegia antolatu du Irurtzunen. 2. motako diabetesa duten pertsonen elikadura eta ariketa fisiko osasungarriak praktikara eramateko gaitasun gehiago garatzeko helburuz antolatu da.

Osasun Eskolara joaten direnak elkarrekin bildu eta haien esperientzien inguruan hizketatuko dira. Gainera, informazioa zabaldu, kasuak aztertu eta ariketak egiteko aukera izanen da. Beti ere, talde txikian eta jende guztia saio guztietara joan ahal izateko antolatzen saiatuko dira, "batzuk besteen osagarri" direlako antolatzaileen esanetan.

Lantegia martxoaren 5ean, 7an, 13an eta 14an izanen da, 17:00etatik 19:00etara, Irurtzunge udaletxeko batzar gelan. Lehenik, elikadura eta ariketa nola daramatzaten aztertuko dute. Elikagai eta ariketa egokiak izanen dira gero. Norberaren faktoreak eta egin daitezkeen aldaketak ere landuko dituzte. Izena emateko: 848 423 450 telefonoan (8:00etatik 15:00etara) edo www.escueladepacientes.navarra.es web orrian. Doakoa da. Saiok gatzelaniaz dira.



Enpresa jasaten ikasteko tutoriala

Cederna Garalurrek antolatu du martxoaren 6rako, 10:00etatik 12:00etara, Utzuganen

SAKANA

Ekonomia jardunean egunero ari diren enpresariak, ekintzaileak eta autonomoak "estres profesionala" izan dezakete. Estres mota hori bi arrazoi nagusik sorrazten dute: beldurrek eta erronkek. Halako egoerak bizi dituztenek "estres profesionala" ulertzeko hurbilpen teorikoa egiten da Cederna-Garalurrek antolatutako saioan.

Javi Urraren eta Dina Ramirez emozio kontsultoreen bidez, "emozioak nola funtzionatzen duten ikasi, blokeoen jatorria ezagutu eta aldaketarako baliabideak" ikasteko bidea emanen dute, "beldurrak eta erronkak integratzen jakin eta gure bizitza pertsonala eta profesionala hobetzeko".

Izena eman nahi duenak bi aukera ditu: 619 328 264 telefonora hots egitea edo sakana.admon@cederna.es e-postara idaztea.

Emakumeak grebara deitu dituzte M8an

Euskal Herriko mugimendu feministak emakumeak martxoaren 8an lau orduko lanuzteak egitera eta etxeko lanik eta zaintza lanik ez egitera deitu ditu. Aitorpenik ez duten lanak ikusgarri bihurtu nahi dituzte, haiek ez eginez

SAKANA

Emakume guztiak grebara deitu ditu Martxoaren 8rako Euskal Herriko mugimendu feministak. Nazioarteko deialdiarekin bat egiten du horrela, izan ere, deialdia 70 herrialde baino gehiagotan egiten da. Greba feministarekin enpresan lanik ez egitea (11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara) eta ofizialki lan gisa aitortzen ez diren beste egiteko batzuk ere ez egitea, esaterako: etxea ez garbitzea, haurrak ikastetxera ez eramatea edota adineko pertsonak ez zaintzea. Horrekin guztiarekin urte guztian aitorpenik jasotzen ez duten lanak ikusgarri bihurtu nahi dituzte, haiek ez eginez. Baina lan eta zaintza grebarekin batera, kontsumo eta ikasle greba ere deitu dituzte. "Bide luze baten abiapuntua" izanen dena.

Deialdia ostiralean aurkeztu zutenean nabarmendu bizitza erdigunean kokatzen duen ekonomia bat aldarrikatu behar dela. Ondasun eta lanen banaketa parekidea eskatu zuten, egungo sistemak feminizatutako lanak eta zaintza lanak ikusezin bihurtzen baititu. "Horren ondorioz datoz hainbat indarkeria". Emakumeek bete ohi dituzten lanbideek gizartean



Emakumeak grebara deitzeko egindako agerraldia. @EMAKUMEAKMARTXAN

itzal txikiagoa dutela eta, maiz, soldata okerragoa dutela gaztigatu zuten, emakumeak burujabe izateko traba bihurtuz eta "bizitza pertsonala, soziala eta politikoa eragozten" die. Indarrean diren legeak migratutako emakumeak "ahulenak" bihurtzen dela gaztigatu zuten, haiek "ikusgarritasun gutxien duten lanak egiten dituztelako" besteak beste.

Greba deialdiak *Emakumeok* planto!* leloa du. Izartxoak emakume gisa identifikatzeko modu ugari daudela adierazten du.

Grebari babesa adierazteko besoko morea eta balkoi edo leihotetan mandarrak zintzilikatzeko eskatu dute.

Deialdiarekin bat egin du euskal gehiengo sindikalak. UGTK eta CCOOek ere bat egin dute, baina soilik enplegatuta dauden langileak deitu dituzte grebara.

Sakanan greba behar bezala prestatzeko aurreneko mugimenduak hasi dira eta Sakana mugimendu feministak deituta emakumeen asanblada irekia egin zen pasa den ostiralean.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Altsasuko herriak Nafarroari Bira, aurkezpena
- AHTri buruzko EH Bilduren iritzia
- Urretxindorra proiektuan parte hartzen ari direnak

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE



Irurtzungo gune askea hartzen duen eraikin okupatua.

Jabetza kolektiboa sustatzeko espazioa

Gazte talde bat hutsik zegoen etxe batean sartu da eta "jabetza kolektiboa" garatzeko helburuz "gune aske bat" sortu nahi du han. Ideia zabaldu, eztabaidatu eta ekarpenak egiteko heldu den astean batzarra eginen dute. "Edozer gerta daiteke"

IRURTZUN

Lizarrakalearen 12. zenbakia duen etxea okupatu du gazte talde batek. Aurretik barruan izan baziren ere, haien sarrearen berri larunbatean eman zuten. Egun horretan bertan eguerdian atea irekitzearekin batera auzolana egin zuten. Arratsaldean batzar irekia egitekoak ziren, baina atzera ere garbiketa lanari heldu zioten. Hori izan baita asteburuan egingako auzolanetan egin dutena. Opatu dituzten objektuak eta bestelakoak gorde egin dituzte.

Gazte irurtzundarrek azaldu digutenez, larunbatean, batez ere gaztetxoak izan ziren jakinmina azaldu zutenak eta Lizarrakaleko etxea bisitatu zutenak. Okupazioaren berri zabalduago zegoela eta igandean adin desberdineko herritarrak joan ziren etxera eta garai bateko oroitzapenak berriro zituzten. "Oraingoz harrera ona izan dugu. Helburua da proiektura jende gehiago hurbiltzea".

Mikelonen etxea izena omen zuen eraikinak garai batean. Baina 20 bat urte dira hutsik dagoela. Hala ere, sartu diren gazteak bizi azarnak opatu zituzten, etxegabeak ibili direnaren seinale. Lau solairu ditu eraikinak. Behekoan estrabia edo ukuilua, zortzina gela eta komun bana dituzten bi solairu eta ganboikoa ditu etxeak. Guztira 906 metro karratu. Banku baten higiezin enpresa batena da eraikina.

Duten ideia

Okupazioa egin duten gazteek argi dute hartutako lokala ez dela gaztetxe bilakatuko; "Irurtzunen aisialdirako espazioak badaude eta ongi funtzionatzen dute". Jabetza kolektiboa sustatzeko tresna bihurtu nahi dute eraikina. Dela etxebizitza, jaki, ibilgailu edo dena delakoa. "Gure bizitzako esparruak kudeatzen joateko modua. Ekintza politikorako zentroa". Herriko talde, eragile eta norbanakoez erabili

dezaketzen "gune askea" izatea nahi dute, beti ere, jabetza kolektiboaren ideiarekin.

Duten asmo hori herrian zabaldu nahi dute, hainbatekin eztabaidatu eta ekarpenak jasotzeko. Horregatik, heldu den astean batzarrera deitzeko asmoa dute. "Jendeari zabaldu nahi diogu. Edozer gerta daiteke".

Hasierako oharra

Okupazioaren berri ematearekin batera gazteek oharra zabaldu zuten Irurtzunek "gune aske berria" zuela, eta "desjabetuon behar zuzenei" erantzunen zientzia jakinaraziz. Sare sozialak erabili zituzten horretarako asteburuan. Twitterren @irurtzunbotere profila zabaldu dute.

EZ DA GAZTETXEA IZANEN. "AISIALDIRAKO GUNEAK BADAUDE ETA ONGI DABILTZA"

Desjabetuak horrela definitu dituzte: "gure behar zuzenak betetzeko soldata edo dirua lortzeko lan egin behar dugun zein horretara kondenatuta gauden pertsonak, hau da langileria". Horrek parean luke "jabego pribatuaren metaketa" egiten duen burgesia jarri dute. Langileriari halako metaketa egitea ukatzen zaiola gaineratu dute. Horrek, besteak beste, honako "mugak" sortzen dizkio langileriari: "janaria erosteko, etxebizitza edo alokairua ordaintzeko, lekualdatzeko, aisialdirako, atsedean hartzeko, ikasteko, seme-alabak mantentzeko, egunero lanpostura joan beharra". Emakumeek bizi behar dituzten indarkeria egoerak edo migratzaileek bizi dutena edo euskararen bazterketa moduko egoerak aipatu dituzte.

Horri guztiari aurre egiteko "jabetza kolektiboa eraiki eta kapitalismoak ezartzen dizkigun kate guztietatik askatzeko borroka egitea da aukera bakarra". Gazteek diotenez, "gure bizitza kudeatzeko gaitasun eta botere kolektiboa eraiki behar dugu, jasaten ditugun zapalkuntzak gainditu eta erasoetatik defendatzearekin batera". Langileek "interes eta behar konpartituak ditugu eta gune aske berriak horien aldeko borrokaren hazia izateko helburua du".

Gazte irurtzundarrek azaldu dutenez, "langabeek, ikasleek, pentsiodunek, etxeoandreek, merkataritza eta denda txiki-tako jabeek, desgaituek, niniek, gaixoez, umeek, kamioi-gidariez, emakume langileek, Inasako langile-ohiek... guztiok batu eta borrokatzeko espazioa lortu dugu". Ziurtatu dutenez, "urteak dira herriko eta inguruko talde zein norbanakook borrokarako espazio baten beharra genuela".

Okupazioa "desjabetuon borrokan funtsezko tresnatzat" jo dute, "garrantzizko ariketa, batez ere beharrezko kolektiboak asetzeko egiten denean eta, are gehiago, burgesiaren menpeko jabetza bat berreskuratzen dugunean". Irurtzungo gune askeko sustatzaileek herritarrak espazioa ezagutzera, haren funtzioei buruzko eztabaidan parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu dituzte, beti ere, gogoratu "gune askearen" jaiotze helburua dela "jabetza kolektiboaren eraikuntzan erreferentziatzeko gunea izatea".

117, Sakanan torturatutako pertsonen kopurua

Sortuk eta Ernaik "benetako erreparazioa" eskatu dute, torturaren kontrako egunaren harira

SAKANA

Azken bi asteetan Sakana guztian barna 117 zioten kartelak eta pankartak ikusi ditugu. Erreze-lo-kanpaina zela argi zegoen, baina jende askok zifraren esanahia jakin nahi zuten. Sakana-ko Sortuk eta Ernaik jakinarazi dutenez, 117 dira 1960 eta 2010 artean Sakanan torturatutako pertsonak. Batzuk behin baino gehiagotan izan dira, 135 kasu salatu baitira.

Asteartean 37 urte beteko dira Joxe Arregi torturen ondorioz hil zela. Eta horren harira 117 sakandarrek "esperientzia latz bezain ahaztezinak" pasa dituztela gogorarazi dute. "Benetako erreparazioa eman dadin, tortura Estatu espainiarrak erabili duen metodo sistematikoa izan dela aitortu behar da". Sortuko eta Ernaiko kideek azaldu dutenez, "bake prozesu integral bat bulkatu behar badugu, urte luzez modu kontzientean estali diren egoerak ikusaraziz eta aitortuz, ez errepikatzea berma dadin".

Bi erakundeek iragarri dute "Sakanak eta Euskal Herriak nahi duten etorkizuna, desmilitarizazioa eta askatasuna" aldarrikatzeko otsailaren 17an, Etxarrin ekitaldia eginen dute.

Tren egitasmoari buruzko informazio hitzaldi gehiago

Sakana Trenaren Alde taldeak hitzaldi gehiago iragarri ditu datozen egunetarako: Arruazun, bihar, 17:00etan, udaletxean; Urdiainen, asteazkenean, 19:00etan herriaren etxean eta Olatzagutian, ostegunean, 19:30ean, kultur etxean. Altsasun kintoak dantzatzen duten bitartean alegazioak sinatzeko mahaia jarri dute taldekideek.

Aizpea eta Pikuxarrendako interes sozial izendapena

Haien bazkide direnak Mezenazgo Legeagatik zerga-pizgarriak jasoko dituzte

IRURTZUN

Nafarroako Aldizkari Ofizialak asteartean jakinarazi zuen Aizpea, Irurtzongo euskaltzaleen topagunearen eta Pikuxar euskal txokoaren jarduna interes sozialeko proiektu izendatu dutela urte bukaerara arte. Horren ondorioz, bi elkarte horiek diruz laguntzen dituzten pertsonak Nafarroako Gobernuaren Mezenazgo Legeak ematen dituen zerga-pizgarriak erabiltzeko aukera izanen dute. Esaterako, 150 eurora arte ematen dutenei errenta aitortpenen %80 bultzatuko diete. Eta hortik gorako kopuruendako errentako itzuleraren %40koa izanen da.

Bi erakundeek elkarrekin *Irurtzun, Euskara eta Kultura* programa aurkeztu dute. Haren helburu nagusia "herriko eta inguruko hizkuntza eta folklore ondarean babestea da, horretarako, euskararen erabilera eta bertako kultur adierazpenak sustatuz". Eta gaineratu dutenez, "irurtzundarrei eta Irurtzunen aisialdiaz disfrutatzen duten inguruko herri eta ibarretako herritarrei zein bertako artista berriei zuzenduta dago". Beraz, bien jarduna diruz bermatzeaz aparte errenta aitortpenen abantailak izanen dituzte.



Bira behar bezala antolatzeko, bisitatuko dituen eskualde guztietan bilerak egiten hasi ziren asteartean.

Auziaren berri Nafarroan barna zabaltzeko, bira

Altsasuko herriak Nafarroari Bira emanen dio otsailaren 24aren eta martxoaren 25a bitartean, bost etapatan. Herriko 46 taldek edo eragilek momentuz izena eman dute eta haien bidez Altsasuko Auziaren berri foru geografian barna zabalduko da

ALTSASU

"Altsasuko zortzi gazteak eta haien familiak pairatzen ari diren injustiziaren aurrean, gaiari buruzko informazioa zabaltzeko Altsasuko herriak Nafarroako eskualde guztietatik bira eginen du". Altsasuarrak eta, momentuz, kultura, kirol, gastronomia, gizarte edota hezkuntza arloko 46 elkartetan parte hartuko dute.

Izena eman duten guztien artean foru erkidegoko eskualde guztietara auziaren inguruko "informazioa eta giza-eskubideen eta demokraziaren printzipioen aldarria modu presentzial eta anitzean" hedatuko dute, "Nafarroako gizartearen mezu hauen

inguruan sentsibilizatu eta konprometitu dadin".

Zabaldu nahi diren ideiak

Zortzi gazteek aurre egiten diote 375 urteko espetxe zigor eskaera, haietako hiru preso eta urrunduta egotea eta haien familiak jasaten ari direna "justiziaren erabilera makurraren ondorioa da", azaldu zuten ekimenaren aurkezpenen. Adierazpen hori zuzenbideko adituen, erakunde publikoen eta gizartearen babesa duela azpimarratu zuten. Aldi berean, Nafarroako Lurralde Auzitegiak joan den urteko martxoan emandako autoan gertaerak terrorismotzat kalifikatzeko zantzurik ez zuela

ikusitako gogorarazi nahi dute biran zehar.

Biraren deitzaileendako honako eskubideak eta printzipioak urratu dira: errugabetasun presuntzioa, epaile naturalaren eskubidea, legearen erabilera ez hedatzailea eta proportzionaltasunaren printzipioa, defentsarako eskubidea, askatasun eskubidea... Ziurtatu zuten, "epaitegi, polizia eta hedabideen gain-jarduketa eta botere-gehiegikeria horrek demokraziaren oinarriak higatzen ditu. Behin pertsona batzuei aplikatzen bazaie, nork ziurtatzen du gizarte osoari aplikatuko ez dakiokunik?" Nafarroako Biraren aurkezpenen adierazi zuten, "urte

honetan adierazitakoa ez da soilik pertsona eta familia batzuei zuzenduriko elkartasuna, demokraziaren balore eta printzipioen eta giza-eskubideen defentsa ere izan da".

Bost etapako bira

Otsailak 24

- Zubiri, Auritzberri, Otsagabia, Irunberri eta Zangoza.

Martxoak 3

- Lizarra, Gares eta Tafalla.

Martxoak 10

- Lekunberri, Leitza, Elizondo, Lesaka eta Baigorri.

Martxoak 17

- Iruñerriaren bizikleta martxa, Iruñean bukatuz.

Martxoak 25

- Tuteraren eta Erriberaren.

Zortziko erraldoia

Aurten ere Zortziko erraldoian parte hartzea deitu dute Altsasukoak Aske-tik. Bihar, 12:30ean, kultur gune parean izanen da. Zapia janztera deitu dute. Kintadek elkartasun argazkiak egitera animatu dituzte. altsasu@gmail.com-era bidali daitezke.



ALTSASU . OTSAILAK 16

Gaztetxean, 21:00etan.

SAKANA ZIRT - PATIOKO BANDA

Idoia Granizo
Eneko Lazkoz
Unai Artieda

Mikel Lasarte
Ainara Ieregi
Sarai Robles
Enma Murillo
Ainhoa Sabuki
Amaia Lasheras
Zuhara Zaratiegi
Idurre Villanueva del Burgo
Beñat Astiz

informazio osoa
www.bertsozale.eus

antolatzailea

laguntzailea





EH Bildutik informazio batzarretara joatera eta alegazioak egitera animatu dute.

EH Bilduk eguneratutako tren sozialaren alde egin du

Koalizioak "herritarren beharrei erantzungo lieken" trenaren alde egin du eta alternatibak landuko ditu.

SAKANA

Sakanako EH Bilduko hautetsien ordezkariak zabal batek Abiadura Handiko Tren (AHT) egitasmoaren aurrean koalizioak duen iritzia eman du. Eurena "merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko egokia litzatekeen eredu" da, trenbide bikoitza eta haiek Europako zabalera. Ibarreko geltokiak "biziberritzea" eskatu dute, "sakandarren bizi-modua eta etorkizuna hobetzeko balioko lukeen tren" izateko.

Horrek guztiak ekarriko luke Sakana "Iruñea, Gasteiz eta Donostiarekin era eroso eta eraginkor batean lotzea. Sakandarreri kalitatezko zerbitzua prezio merkean eskaintzea. Ahalik eta herri gehienetan zerbitzua eskainiz".

Desadostasunerako argudioak

Sustapen Ministerioak proposatutako AHT ibilbidearekin "erabateko desadostasuna" azaldu zuten. "Proiektu inposatua da, inork ez du sakandarren iritzia eskatu ezta aukerarik eman erabakia hartzeko ere". Aldi berean, AHTk "inongo justifikazio sozialik eta ekonomikorik ez duen azpiegitura" dela ziurtatu zuten, gaineratuz "ekonomikoki eta sozialki ere ez direla bideragarriak". Desadostasunerako EH Bilduren beste arrazoi bat "gizarte lehenetsunak daudenean AHT diru xahutze ikaragarria dela".

Koalizioak tren azkarraren kontra argudiatu du Sakanako Plan Estrategikoa "goitik behe-

ra" baldintzatzen duela, "abeltzaintza, nekazaritza eta turismoaren sektoreak are gehiago ahulduz". Egitasmoak ingurumena "izugarri kaltetzen" duela gaineratu eta konstatazioa egiten du koalizioak: "Sakanan azpiegitura erraldoietarako korridore hutsa bilakatzea (AHT, autopista elektrikoa...), horretarako gure bailara txikitu behar bada ere".

Ekimenak eta alternatibak

EH Bilduko hautetsiek jakinarazi zuten, AHT egitasmoaren jendaurreko epearen barruan, alegazioak aurkezteko epean gaude eta "horretara animatu behar ditugu instituzioak eta herritarrak". Sakanako Mankomunitateak ere alegazioak aurkezteko proposatu dute.

Koalizioko kideek konpromisoa hartu dute "Sakanak behar duen tren sozialaren inguruko alternatibak ikertzeko lanak egin daitezken". Parte hartzen duten guztiak erakunde guztietan hori bulkatuko dutela gaztigatu dute.

Bi proposamen jakinarazi zituzten. Batetik, Iruñea eta Gasteizko trenari buruzko ikerketa abian jartzea udalen eta Sakanako Mankomunitatearen babesarekin. Bestetik, Nafarroako Gobernuari eskatuko diote "Alternatiba guztiak aztertzea eta haien artean hautatzeko prozedura demokratiko bat martxan jartzea. "Herritarrok erabaki dezagun zer nolako tren behar edo nahi dugun, ez beste inork".



Natur parkeko erabilera publikorako plana egitear

Nafarroako Gobernuak Urbasa-Andia natur parkeko erabilera publikoko plana egiten du

SAKANA

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak aurten Urbasa-Andia natur parkeko erabilera publikoa arautuko duen plana egiten du. Haren bidez mendiaren ingurumen balioak zaindu eta aisialdiko jarduerekin bateragarri egiteko irizpideak zehaztu nahi dira. Mendiak eskaintzen dituen aukera guztiak aztertuko dituzte. Horren ondoren, erabilera publikoa planifikatuko dute, eragin ahalik eta txikienak sortzeko helburuz eta hornidura onenak kontuan izanik.

Natur parkeko patronatuaren erabilera publikoari buruzko lan mahaian sortu zen ideia (abeltzaintza eta basoari buruzkoak ere badaude). Urbasa-Andiako erabilera publikoa arautuko duen plana idazteko lanean abeltzainek, turismo arloko ordezkariak, herriek eta elkar-teeek parte hartuko dute.

Inklusibitatea azalertzeko argazki erronka

Argazkien bidez inklusibitatea jasotzeko gonbidapena egin du Nafarroa Oinezek

SAKANA

Iñigo Aritzak Nafarroa Oinez antolatuko du eta festa horren bitartez egoera inklusiboak sustatzeko ekintzak egitea hartu zuen erronkatzat. *Argazkien bidez inklusibitatea* ekimenaren helburua da irudien bidez egoera inklusiboak plazaratzea.

Horretarako, argazkilariek kontutan hartu beharreko irizpideak honakoak izanen dira: aniztasun funtzionala, genero aniztasuna, kultura edo jatorri aniztasuna, giza irudi aniztasuna, hizkuntza aniztasuna, belaunaldi aniztasuna eta osasun aniztasuna.

Nafarroa Oinezetik "inklusi-bitatearen irizpide horiek kontuan izanik Urdiain, Altsasu, Olatzagutia, Ziordia eta Nafarroako gainerako ikastoletan argazkiak egiteko deialdia" egin dute. "Irizpide horiek errespetatzen diren edozein egoera, toki, protagonista eta bestelakoei argazkiak ateratzean datza ekin-tza".

Argazkiak ateratzeko epea astelehenean zabalduko da eta hilaren 28ra arte egonen da zabalik. Ekimen horren inguruko informazio zabalagoa, arauak eta parte hartzeko modua www.nafarroaoinez.eus web orrian.

Terrorismoko biktimen elkarte berria Nafarroan

Asociación Navarra de Víctimas del Terrorismo de ETA da sortu berri den erakundearen izena

SAKANA

Larunbatean aurkezpen jendetsua egin zuen Asociación Navarra de Víctimas del Terrorismo de ETA (ANVITE). Erakunde sortu berriak 120 kide ditu eta ETArek atentatuak hil edo zauritutako 50 biktima ordezkatzeko dute. Haien artean daude ETAk 1979ko ilbeltzaren 27an hildako Jesus Ulaiar Lizziagaren ondorengoak.

Jakinarazi zuten, "sekula ez dugu gurekin erabilera alderdikoiak egiten utzi, eta ez dugu utziko". AVTko presidente Alfonso Sanchez erantzun nahi izan zioten horrela.

Gaineratu zuten, "EH Bilduk eusten dion Nafarroako Gobernu publikoki salatu dugu ETArek beldur historia zuritzeko egindako ahaleginengatik. Eta ahalagin horretan biktima kontzeptua moralki onargarriak ez diren mugetaraino luzatzen du". Adibidetzat *Etxarri Aranazko Sufrimenduaren mapa* jarri zuten: "herriko alkate izan zen eraildako bat eta bere hiltzaileak plano berean jartzen dira". Agerraldian jakinarazi zuten, ETako biktimen memoriako eguna dela eta Iruñeko Baluarte plazan egiten den ekitaldian izanen dira igande eguerdian.

Txerria, ospakizun

La Encina Extremadurako kultur elkarteak txerri hiltze ospakizuna antolatu zuen ilbeltzaren 27an. 110 kiloko aberea zatitzez Teodoro arduratu zen. Maria Galladorekin batera Dolores Martinez, Jose Luis Cidoncha, Nicolas Fresneda, Clara Iglesias eta Jesus Cidoncha izan ziren lanean. Baita hainbat altsasuar eta Iruñetik ospakizunera propio etorritakoak ere.





Murgildu gaitezen inauterietan!

Aurreko astean Irañetan ospatu zituzten inauteriak. Etxarri Aranatzan ere hiru inauteri egun bizi izan dituzte azken hiru ostegunetan, Gizakunde, Andrekunde eta Garikunde. Baina Sakanako herri gehienetan asteburu honetan eta astearte ihotean ospatuko dira inauteriak

SAKANA

Beste behin egutegia kapritxosoa izan da eta aurten ere Santa Ageda eta kinto ospakizunek inauterietan eginen dute bat.

Baina lasai, ez dago arazorik, gorputzak denetarako ematen du, edo beharko, eta otsailean kinto eta ihote festetan murgilduta ibiliko gara erabat. Dagoeneko zenbait herritan ihoteak ospatu dira. Irañetan, esaterako, aurreko asteburuan ospatu zituzten eta Etxarri Aranatzan azken hiru ostegunetan Gizakunde, Andrekunde eta Garikunde ospatu dituzte.

Baina astearte astearte ihote eguna da, inauterien egun handia, eta egun berezi horren arira, asteburu honetan hasiko dira Sakanako herri gehienetako ihoteak, heldu den aste-kourrenko asteburuan ere zenbait herritan jarraipena izanen dutenak. Prestatu mozarroa, ihoteetan baikaude-eta, bete-betean!

IRURTZUN

Ihotea, gaurtik aurrera Irurtzunen

Irurtzuno inauteriak Atakondoa eskolako ikasleek abiarazten dituzte gaur goizean. Mozorrotutako haurrek ihotea ikastetxean eta herrian barna ospatuko dute. Behin ikastetxera bueltan Marigorri erreko dute, ohi bezala. Iskidi taldeko joaldunak eta mitologia-pertsonaiak arratsaldean izanen dira. Irudimen ospakizuna bihar borobilduko da koadrila guztiak mozarrotuko baitira eta bazkal garaitik ordu txikietaraino irurtzundarrek festan itxuraldatuta parte hartuko dute. Bazkarira 300 bat mozarrotu elkartuko dira.

OSTIRALA 9

10:15 Mozorroen desfilea, hamaiketako eta kalejira Irurtzunen barna.

Marigorri erretzea, eskolan.

18:00 Herri inauteriak: Irurtzuno joaldun handiak

eta txikiak eta mitologia pertsonaiak.

Plazatik abiatuta. Iskidi. Triki-poteoa eta txistorra-jana karpan.

23:00 Kontzertuak Larrazpin.

LARUNBATA 10

13:30 Kalejira Galtzagorri txarangarekin.

14:15 Bazkaria jubilatuko elkartean

14:30 Inauterietako herri bazkaria eskolako jantokian.

17:00 Herri kalejira txarangarekin, eskolatik abiatuta.

17:30 Mozorrotutako pertsonen eta kuadrillen kontzentrazioa eta argazki-photocalla, plazan.

18:00 Inauteri desfilea.

19:00 Txistorra-jate herrikoia, plazan.



IRURTZUN

IGANDEA 11

17:00 Haurrendako animazio zinema: Ardiak eta otsoak.

18:30 Haurrendako animazio zinema: Ovejas y lobos.

UHARTE ARAKIL

Mozorro-festa eta kalejira

Uhartearren koadrilak larunbateko mozarro-festarako mozarroak eta inauteri-gurdiak prestatzen lanpetuak izan dira azken egunetan. Bihar, larunbatean aterako dituzte gurdiak, gutxi gora behera arratsaldeko bost t'erdia aldera abiatuko den desfilean. Baina momentu

hori iritsi aurretik animatuenak gosaltzera elkartuko dira, goizeko vermouthera pintxo-pintxo mozarrotutas ateratzeko.

Aurten Alondegian bilduko dira mozarrotuen herri bazkaria. 60 bat uhartear daude izena emanda. Beste koadrila batzuek euren albizona bazkalduko dute. Baina batzuk eta besteak bost t'erdia edo seiak aldera elkartu, mozarrotuen ihote-segizioa osatu eta kalejira abiatuko dira herritik barna. Aurten Uharteko txaranga izango dute lagun. Mielotxin ere aterako da. Herrian barnako ibilbidea plazan despedituko dute eta gaitz guztiak irudikatzen dituen panpina erreko dute. Ondorengo parranda ordu txikiak arte luzatuko da.

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Santa Agedan

Larunbatean ogitarteko goxo-goxoak barran!!!

948 467 876 · Altsasu

Txoootx!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

gozo degozuela Santa Agedan...

Argazkiinaxxx. ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153



ARRUAZU

Moxorroak kaleetako nagusi

Igandean, 17:00etan, Arbazura gerturatzen direnek moxorroak ikusiko dituzte kaleetan. Izan ere, haiek dira herriko ihoteko protagonistak; burua estalita, soineko eta arropa koloretsuekin eta zigorra eskuan, jendea berotu nahian ibiliko dira. Etxeko txikiak dira moxorro bihurtuko direnak. Eta, horretaz gain, beste moxorroak ere ikusteko aukera izango dute. Mozorrotutako guztiek etxez etxe puska biltzea egingen dute eta jasotako jatekoekin eta diruarekin txikiak afari-merienda egingen dute Itur-Gain elkartean.



UHARTE ARAKIL

LAKUNTZA

Bihar espezie guztiak; asteartean zatamarroak

Bihar, eguerditik aurrera, Lakuntzako koadrilak, familiak eta txikiak mozorrotuta aterako dira kalera. Denetarik moxorroak ikusteko aukera izanen da inauteri egunean, eta giroa berotzeko 13:30ean hasiko da txaranga lanean. Aurten, kultur etxean izanen da inauterietako bazkaria. Udaletxeak lekua utziko du, baina koadrila bakoitza izango da norbere lagunarteko bazkariko arduraduna. Bazkari autogestionatua izango baita aurtengoa. Ondoren, 18:00etan dantzaldia izango da kultur etxean eta inauteri festak ordu txikitara arte izanen du segida.

Asteartean zatamarroek hartuko dute herria. Soinean arropa eta zaku zaharrak jantzita, aurpegia zapi batekin estalita, buruan lastozko txapela eta eskuan erratza, sardea edo urritz makila, zigorra. Horixe da zatamarroa. Hura gertutik ikustea seinale txarra, eskutan darabiltenarekin jendea berotu egiten baitute. Hala ere, jendea ez da geldi egotekoa eta haiek zirikatze "zatamarro begi-gorri urtien behin etorri" errepika behin eta berriro esanen dute asteartean. Orduan aterako baitira eta kalean gora eta behera ibiliko dira jendea izutzen eta berotzen. Asteartean



ARRUAZU



LAKUNTZA

ere etxe txikiak mozorrotuko dira.

OTSAILAK 10, LARUNBATA
13:030ean Txaranga herrian zehar.

14:30ean Bazkari autogestionatua kultur etxean.

18:00etan Dantzaldia kultur etxean.

OTSAILAK 13, ASTEARTEA
17:00etan Ttxokolate- jana.

Ondoren, zatamarroak eta mozorrotutakoak kalez kale.

ARBIZU

Arbizuko txatarrek dakartena

Ihoteak bertan dira eta Arbizun txatarrek ospatzeko egitarau polita antolatuta dute. Hasteko, bihar moxorro eguna izango da. Dagoeneko, makina bat arbizuar koadrilek euren moxorroa prest dute eta eguerdian aterako dira kalera, desfile koloretsua egiteko. Bapo bazkaldu ondoren, inauteri festa gaueko ordu txikitara arte luzatuko da.

Baina ospakizun horrekin batera, asteartean Txatar-eguna ospatuko da eta arbizuarrei txatarraz mozzoratzeko gonbitea egin diete Udaletik, Arbizuko betiko herriko inauteriei eusteko. "Jendea animatu nahi dugu txatarraz janztera, baina ez zakuaz bakarrik, txatxarraz janztea jantzi zaharrak, trapuak, zakuak, koltzak, edozein gauza janztea delako, eta, gainera, txatarraz janztea, txatamorroen makilkadarik ez hartzeko modurik onena delako" aipatu dute Udaletik.

OTSAILAK 10, LARUNBATA
12:00etan Aate plazan

13:00etan Kalejira.

15:00etan Bazkaria Aldabiden.

OTSAILAK 11, IGANDEA
Kintuek eskien.

OTSAILAK 12, ASTELEHENA
18:00etan Haurrendako pelikula.

OTSAILAK 13, ASTEARTEA
11:00etan Pixkeet eskien.

16:00etan Dantza-kalejire eskien.

19:00etan Txistorra-jana, plazan.

20:00etan Aittun haundiya eta amiñ txikiya erretzea eta txatamorruek.

21:00ean Herri afaria Aldabiden.

OTSAILAK 16, OSTIRALA
19:00etan "Adarrak dantzan" Altsasuko herri-inauteriar buruzko dokumentalaren aurkezpena.

Oharra

Bazkarirako txartelak (16 euro helduak, 10 euro haurrak, 13 euro ikasle eta langabeak) Karrera tabernan, udaletxien eta liburutegian daude salgai.

UNANU

Mamuxarroak Unanuko kaleetan barna!

Kamixeta eta galtzontzilo luze zuriak, gerriko beltza edo gorria, paxpalinak (mutuak ez direnak) eta zatak jantzita, aurpegia metalezko katolaz estaltzen dute. Gainera, eskutan zigorra dute, belaunetik behera hankak berotzeko azkar eta ederki ibiltzen dakitena. Horiek dira Unanuko mamuxarroak. Urtean bitan ateratzen dira eta iritsi da haien garaia: ihotea.

Mamuxarro txikiak eta handiak daude. Aurrenekoak igandeko protagonistak izanen dira, bigarrenak asteartekoak. Bi egunetan ordu batez ateratzen dira kalera mamuxarroak, 17:00etatik 18:00etara. Bitarte horretan Unanuko karrketan aurrera eta atzera ibiltzen dira, korrika, parean duten guztia berotzen. Mamuxarroak desagertu ondoren, elizako atarian musika eta auzatea izanen dira. Indarrak hartuta unanurrek etxe-etxe abiatuko dira, puska biltzea egin eta horrekin afaltzeko. Danok bat elkartean afaria 22:00etan izanen da, bai igandean, bai asteartean.



ARBIZU



UNANU



LIZARRAGA



ETXARRI ARANATZ

LIZARRAGA

Ihoteak, gurdiak, puska biltze eta bazkari-afariarekin

Biharko egunarekin ospatuko dituzte lizarratarrek inauteriak. Azi Iturri elkartearen eguerdian jarri dute hitzordua eta, apika, mozorrotuak agertuko dira, mozorrotutako gurdi eta guzti. Trago batzuk hartu eta ihote-segizioa osatzen duten mozorrotuak kalejira egingen dute. Gurdietan musika eta edateko dutenez, bapo ibiliko dira. Kalejira elkartearen despidituko dute eta ihote bazkarian 70 bat lizarratar eseriko dira mahaira. Ilundu aurretik mahaitik jaso eta etxex-etxeko puska biltzearekin ekinen diote, gurdi gainean, jakina. Jasotako jatekoekin ihote-afaria egingen dute. Ondoren, parranda luzatu egingen da.

ETXARRI ARANATZ

Zalduniyote eta astearteyote aurretik

Hausterre egunaren aurreko hiru ostegunetako ospakizunak pasa eta gero, igandean etxeko txikiak dira Etxarri Aranazko ihoteko protagonistak, Zalduniyotetan. Haurrak txatarraz jantziko dira eta 18:00etan plazatik kalejiran abiatuko dira.

Herrian barna ibili eta gero, txatar txikien segizioa plazara bueltatuko da eta han kintoek antolatutako jokoak izanen dituzte zain, txistulariek giroa prestatzea. Eta eguraldiak laguntzen badu, Irurtzungo pertsonaia mitologikoen eta Irurtzungo joaldunen bisita izanen dute etxarriarrek.

Astearteyotean, garai batean, gaita jotzen zen eta bazkaria egiten zuten, denak txatarraz jantzita. Egun, ohikoa denez, goizez eta arratsalde txarangak kalejira egingen du eta txikienek euren mozorroak erakusteko aukera izanen dute. Turrutxiki txaranga izango da aurten doinu alaiak jarriko dituen. Eguerdian, haurrendako animazioa eta dantzaldia ekarriko ditu "Dantza kasting" ikuskinak. Ondoren, animosoenak bazkaltzera elkartuko dira aurten ere. 17:30ean, txokolatetara izanen da eta txarangarekin kalejira. Hura despidituta, 18:00etatik 22:00etara dantzaldia izanen da Orots taldearekin. Hain zuzen ere, mozorro gehienak arratsalde iluntzean elkartuko dira, poteoan. Afaldu ondoren, mozorroak eta txatarrak, denak nahastuko dira ordu txikiak arte iraungo duen inauteri parrandan.

BAKAIKU

Haurrak asteartean eta kamarroak otsailaren 24an

Santa Agedako ospakizunekin bat egiten dutenez, Bakaikuko kamarroak edo herri inauterietako protagonistak beranduago aterako dira aurten Bakaikun, otsailaren 24an hain zuzen ere. Astearte inauterian, aldiz, haur eta gaztetxo bakaikuarrak mozorrotuko dira. Santa Ageda koplak kantatzean jasotakoarekin bazkaltzera bilduko dira eta egun pasa polita egingo dute.

ITURMENDI

Asteartean jitomoxorroak kalera eta hurrengo larunbatean mozorrotuen festa

Iturmendin iaz egindako aldatetari eutsi diote. Ordura arte domekan egiten ziren ihote ospakizunak, baina larunbatera aurreratzea erabaki zuten iaz. Aurten asteburu honetan kintoen ospakizunak direnez, hurrengo larunbatera, otsailaren 17ra, atzeratu dute inauterien festa.

Baina aurretik, asteartean, 20:00ak aldera, jitomoxorroak kalera aterako dira; kalejira

zaratatsua egingen dute Iturmen-diko kaleetan barna. Aitzkozar elkartearen 22:00etan egingen den afariarekin despidituko dute ihotea. Bestelako mozorroak hurrengo larunbaterako utziko dituzte.

URDIAN

Mantaguna, momoxarro txikiak eta handiak

Mantaguna guna, guna, guna, zakuan kunkuna. Errepika hori behin baino gehiagotan entzuten da Urdiainen, larunbatean, Mantagunean. Arpilarazko mantak edo zakuak jantzita, ikusteko bi zulo eginda, zigorra eskuan dutela mozorrotu txikiak ingurukoak zirikatatu eta berotuko dituzte. Aurten Santa Agedako ospakizunekin bat egingen du Mantagunak, eta kinto eta mozorrotu, festa polita izanen da herrian.

Ihote-ospakizunekin domekan izanen dute segida. Iluntzearekin batera kalean agertuko diren momoxarro txikiak izanen dira protagonistak. Askotariko itxura dute momoxarroek: ardi-narruak edo ohe-estalkiak izan ditzakete soinean, aurpegia estalita, batzuk buruan txano konikoa jantziko dute, farak dituzte, besteak beste. Zigorra eskutan, jendea berotzeko aha-

legin betean ariko dira. Haiekin batera, etxeko txikienek soinean mota guztietako mozorroak jantziko dituzte. Ondoren, txokolatetara izanen da, plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera.

Txikien ondoren, momoxarro handiak asteartean jabetuko dira Urdiaingo kaleez. 18:00etatik aurrera kalean opatzen dituztenek haiengandik lasterka ihes egiten ez badute, zigorrek ederki berotuko dituzte. Are gehiago honakoa esanez gero: Momoxarro xirrikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero. Aurpegiko estalkiak 20:00etan kenduko dituzte momoxarroek. Segidan, baten bat baino gehiago sorgin afarietan bilduko da.

ALTSASU

Hiru egunetako inauteria

Altsasuk ihoteaz gozatzeko hiru egun eskaintzen ditu. Domekan inauteri txikiarekin, haurren egunarekin, hasiko dira ospakizunak. Astearteko herri-inauteriko eta heldu den larunbateko hiri-inauteriarekin osatzen dira mozorro egunak

Larunbatean Santa Agedako kintaden bazkari, afari eta festan murgilduta egongo dira altsasuarrak. Baina igandetik aurrera txipa aldatu eta inau-



terietan pentsatzen hasiko dira, igandean inauteri txikia baita, asteartean herri inauteria eta hurrengo larunbatean, hilak 17, piñata eguna.

Igandean etxeko txikienak mozorrotu eta haurren maskaradan bilduko dira, 17:30etik aurrera. Xaiborrekin mozorro festaz gozatzeko parada izango dute txikiak eta gaztetxoak, eta bukaeran Momonsuzkoren bisita izanen dute.

Astearteko herri inauteriak dira kuttunenak altsasuar askorendako. Inauteriak berreskuratzeko lan handia egin zuten altsasuarrek, duela 36 urte berreskuratu zituzten, 1982. urtean eta ordutik barritik bizi duten festa da. Festa ikusgarria, "Turismo Intereseko Nafarroako Festa" izendatu zuen 2011ko Foru Aginduak.

Ihote altsasuarreko ikonoa momotxorroa da. Makina bat altsasuar hartan itxuraldatuko dira asteartean. Baina baita ihote segizioa beste hainbat pertsonaietan ere: ereintza, juantranposoak, maskaritik, akerrak eta sorginak, ezkontza eta matxin gaiztoak. Txikiak segizioa, ohi bezala, arratsaldean izanen da eta iluntzearekin batera, berriz, helduena.

Aurten ere, astearteko ihote-segizioa Zumalakarregi plazara iristen denean, Dantzarima dantza konpainiako kideek Akelarrea, Hamahiru taupada irudikatuko dute. Sorginen larruan sartu eta "lurraren taupadak sentituko ditugu. Bizitzaren erritmoaren mugimenduarekin gugana gerturatu dira, beste behin, magia eta Akelarrearen dantza ekarriz". Inauterien segizioa plazara iritsi baino lehen, berriz, dantzaren konjuruen eta musikaren bidez sorginek Altsasuko segizioa pertsonaiak lozorrotik ateratzen hasiko dira, iluntzearekin, neguari, akabera emanez. Lo dagoen natura fareen soinuek eta errautsek garbituko dute, berriz emankor izan dadin.

Oharrak

Hasteko, inauterien batzordeak azpimarratu nahi izan du inauterietan ere berdintasunean bizi behar dugula festa, eta etxeko eta familiako ardurak guztien artean banatu behar ditugula. Halaber, "ezezkoak ezetz" esan nahi duela nabarmendu dute, eta "Erasorik ez" leloa bere egin dute.

Bestalde, jakinarazi dute momotxorroak eta beste pertsonaiak Zelandin jantzen diren bitartean



BAKAIKU



URDIAIN

bisitariak hori ikusteko aukera izanen dutela, baina frontoira sartzeko deia egiten zaienean, Zelandiko eremutik ateratzea eskatu dute. Bestetik, gogorarazi dute ihote programazioan parte hartzea guztiz borondatezkoa dela. Horregatik, arretaz jokatzeko eta segurtasun tartea gordetzea gomendatu dute. Ez udala ezta Inauteri Batzordeak ere ez du pertsonengan edota materialetan sortutako kalte edo erreduren ardura izanen. Azkenik, Zelai, Altzania eta Bakea kaleetan autorik ezin dela apartatu gaztigatu dute.

OTSAILAK 11 DOMEKA: INAUTERI TXIKIA

17:30etik 19:30era Haurren maskarada Iortia aurrean. Txokolate-jana eta mozorro festa Xaiborrekin. Akaberan, Momonsuzko.

OTSAILAK 13, ASTEARTEA: HERRI INAUTERIA

14:30ean Herri bazkaria, Burunda frontoian.

16:30ean Puska biltzea, Alde Zaharretik.

16:30ean Momotxorro txikiak elkarretaratzea eta txokolate-jana, Zumalakarregi plazan.

17:00etan Momotxorro txikiak irteera, Txaranga Txorongo eta Altsasuko Gaitariak lagunduta.

17:30ean Auzatea Gure Etxean.

18:00etan Inauteri txikiaren iritsiera Foru plazara. Ondoren, Momonzuskoa.

18:30ean Kalejira, Foru plazatik Zelandiraino.

18:30ean Torrada dastatzea, Gure Etxea eraikinean, Altsasuko elkarte gastronomikoen laguntzarekin.

18:45ean Odolaren erritua eta herri inauteriko elkarretaratzea, Zelandin.

19:00etatik 21:00etara Dantzaldia Soni2 bikotearekin, Foru plazan.

19:30ean Herri inauteriaren irteera, Zelanditik. Txorongo Txaranga, Zangitu fanfarreak, Altsasuko Txistulari eta Gaitariak eta Xapiru trikitixa eskolak lagundua.

19:45ean Ezkontza San Juan plazan.

20:00etan Akelarrea, sugarraren boterea, Dantzarima dantza konpainiako dantzariak. Zumalakarregi plazan.

21:00etan Inauteriaren iritsiera, ezkila jotzea, dantzaldia eta mozorroak kentzea, Foru plazan.

22:00etatik 00:00etara Dantzaldia Soni2 bikotearekin, Foru plazan.



ITURMENDI



ALTSASU



OLATZAGUTIA



OLAZTI

Larunbatean Zamarraundiak, zamartxikiak, iratxoak, basaldunak eta bestelako pertsonaiak kalera

Mende erdiz isilduta egon ondoren, duela 26 urte berreskuratu zituzten Olaztiko Ihoteak. Aurreko urtean, 25. urteurrena zenez, modu berezian ospatu zituzten herri inauteriak eta hainbat herritako pertsonaiak gonbidatu zituzten. Esperientzia bikaina izan zenez, aurten ere gonbidatuak ekartzea pentsatu dute. Horrela, Olaztiko bertako Zamarraundi, Zamartxiki, iratxoak, Mari Arroka, medikua, alkatea, apaiza, behizainak, basozainak... eta halako pertsonaiekin batera, Ahnauzeko Basaldunak izanen dira larunbatean Olaztin. Larunbatean 18:30ean aterako dira kalera.

Aurreko ihoteak

1937. urtean Francok inauteriak debekatu zituen, "inmoralak" omen zirelako. Olaztiko inauterietan berreskuratze lanak egin zituen Adelaida Kintanak kontatu zigunez, aurretik Olaztin hiru egunetan ospatzen ziren ihoteak. Lardero egunean, ostegunean, ahuntzainak, basozainak eta behizainak etxez etxe joaten ziren, bi eskaintza zereal eman behar zituztelako haien langileei. Etxekoandreek ere jakiak eramaten zizkieten, eta ondoren merendua edo bazkaria egiten zuten, haurrek eta ttuntuneroek lagunduta. "Horregatik guk berreskuratutako ihoteetan ateratzen diren lehenengo pertsonaiak haiek dira, alkatea, apaiza, medikua, behizainak, ahuntzainak, basozainak... Suziria botatzen dute eta orduan hasten gara segizioarekin" azaldu zigun Kintanak. Beste egun batean Zamartxikiak ateratzen ziren. Ardilarru bakar batez bizkarreran, bururaino, janzten ziren. Aurpegia beltzez margotzen zuten eta gero harrapatzen zuten edonori muxua bezala emateko gerturaten ziren, baina, aurpegia zikintzen zioten. Kamantxilak eramaten zituzten eta zarata handia egiten zuten. Jendeari edozein gauza botatzen zioten: errautsak, lurra... harrapatzen zutena.

Zamarraundiak asteartean ateratzen ziren, egun handian, garizuma aurreko egunean. Horiek bi ardilarru eramaten zituzten, bat aurretik eta bestea atzetik. Aurpegia zapi txuri batez estalita eramaten zuten; ipurukoa, farak edo joareak eta gona eramaten zuten ere. Zarata handia egiten zuten: jendeari bazetozela eta egurra eman behar zutela abisatzeko. Makila edo egurrezko sardea eramaten zuten. Haurrek ere korrika egiten zuten eta lelo bat kantatzen omen zuten. "Pasa den mendearen hasieran, gizon batzuek gurdi bat atera zuten. Gurdia ongarriz beteta zegoen. Gaur egun ongarrria botatzea ez da bidezkoa, ezinezkoa da, horregatik lurra edo zerrautsa botatzen dugu. Gurdi hau idiak bezala eramaten zuten eta labaderora edo iturri-ra joaten ziren ura edatera. Zamarraundiek egiten zuten" kontatu zigun Kintanak.

Hiru eguneko ospakizun horiek egun batean bildu zituzten olaztiarrek duela 26 urte inauteria berreskuratu zutenean. Mari Arroka ere gehitu dute segiziora. Ihote Batzordeak eta Olaztiko Udalak antolatzen dute herri inauteria.

Asteartean txikien merendola eta sardina-erretzea

Astearte inauterietan Olaztiko txikienak mozorrotzen dira. Beraidako ikuskizuna eta txokolate-jana izanen da. Gauetan, aldiz, sardinaren irteera eta sardina-erretzea egiten da.

OTSAILAK 10, LARUNBATA

14:30ean Herri bazkaria frontoian. Postreko torrija lehiaketa.

18:00etan Janzteko elkarretaratzea frontoian.

18:20ean: Futbito pistaraino kalejiran

18:30ean: Herri ihoteak futbito pistatik. Gonbidatuak: Anhauzeko Basaldunak

20:00etan Zortzikoa plazan. Ondoren, salda eta poteoa txarangarekin.

OTSAILAK 13, ASTEARTEA

17:00etan Merendola eta Pac-Man Dantz pilotalekuan.

21:30ean Sardinaren irteera eta erretzea. Torrijak gaztetxean.

ZIORDIA

Txikien festa asteartean

Ziordian, asteartean inauteriak ospatuko dituzte herriko txikiek. 17:30ean elkartuko dira mozorrotu txikiak eta herrian barnako kalejira egingen dute. Buelta osatu ondoren Errekakartea elkartearen merendua izanen dute, txokolate-jana eta ogitartekoak. Aurreko urteetan bezala, helduen ihote ospakizuna hurrengo asteburura pasako da, otsailaren 17ra. 19:30ean aterako dira kalera mozorrotu guztiak, poteora. Bapo afaldu ondoren, Pantxo Valbuenaren kontzertuarekin dantzan jarriko dira guztiak.

HURRENGO ASTEAN, GEHIAGO

Herri inauteriak pasata, Altsasuko eta Olaztiko hiri inauteriak edo piñatak otsailaren 17an ospatuko dira. Ziordiko helduen ihote ospakizuna ere otsailaren 17an izanen da. Ihabarren ere hurrengo asteburuan, otsailaren 17an eta 18an ospatuko dute inauteria. Baita Hiriberrin ere, otsailaren 17an. Aldiz, Bakaikuko kamarroak otsailaren 24an aterako dira kalera, orduan ospatuko baita inauteria.



ZIORDIA



IRANETA



IHOTE

Zortzi herri kintoak hartuta

Santa Ageda ospakizunak eta segituan inauteriak heldu diren bakoitzean gertatzen den moduan Sakana erdialdeko eta Burundako kinto ospakizunek bat egiten dute. Aurtengo kintoe ospakizunei beste kintadak batuko zaizkie Burundako herri batzuetan



Olaztin larunbatean ospatu zituzten kintoak. UTZITAKOIA

LAKUNTZA

Kintoak festarako prest

Bederatzi lakuntzar dira kintoak aurtun: Irati Tadeo, Jon Lanz, Xabier Lanz, Julen Vitoria, Garbiñe Goikoetxea, Julen Urabaien, Iker Cerviño, Alicia Cabezudo eta Iratxe Flores. Baina haiekin batera kinto segizioa kinto zahar eta kinto gazteek osatuko dute, 32ko taldea osatu arte. Denak elkarrekin astelehenean, 09:30ean, izanen dira, plazan. Guztiak ere baserriarrez jantzita. Trikitilariak eta bonboa lagun dituztela kalejiran nabarmenduko dira. Astelehen goizean bertan

etxez etxeko kinto-eskea egingen dute. Egiteko hori 11:30ean moztuko dute, kintoetako baten etxera gosaltzera joateko. Mokadua jan eta gero kinto eskearekin segituko dute.

Taberna batean bazkaldu ondoren, kinto eskeak arratsaldean segituko du. Merienda hartzera beste kinto baten etxera joanen dira 19:00etan. Ondoren poteoan ariko dira, taberna batean afaldu eta gero Tolosarako bidea hartzeko.

Asteartean, 11:30ean elkartu eta kinto baten etxera gosaltzera joanen dira, eta gero kinto-eskeari helduko diote berriz. Bazkaldu eta gero kinto eskeak segituko du, meriendarekin

moztuko dena. Afaldu eta gero kinto-segizio lakuntzarra Altsasura joanen da, parrandara. Bi egunetako gosariak eta meriendak antolatzearen ardura kintoen arteko zozketa bidez aukeratzen da.

ARBIZU

Bederatzikotea kinto

Arbizuko aurtengo kinta bederatzikotea osatzen dute, honakoak: Alain Alberdi, Ander Rosado, Asier Reparaz, Mattin Petriati, Jon Lazkoz, Aitana Etxabarri, Ainara Andueza, Larrait Flores eta Itziar Razkin.

Guztiak ere afaltzera elkartuko dira gaur eta horrela hasiko dituzte kinto ospakizunak. Afaldu ondoren, Argi Bidea elkartek kinto parranda hartuko du. Larunbatean hiri-ihote ospakizunekin bat egingen dute kintoek.

Mozorro ajea atzean utzi eta igandean, 10:00ak aldera, kinto ospakizuneko gastuei aurre egiteko kalera eskatzera aterako dira. Trikitilariak lagun dituztela kintoak herrian barna ibiliko dira eskean. Egitekoak despedituta Baxerri jatetxean bazkaldu eta arratsaldean parrandari segida Tolosan emanen diote. Astelehenean bederatzikotea Izarran bazkaltzera bilduko da. Poteoan ibili eta gero Kiroldegiko tabernan afaldu eta, atzera ere, Tolosarako bidea hartuko dute 23:00etan.

Asteartean ihote ospakizunekin bat egingen dute, berriz ere, kintoek. Aldabide elkartean eskaintzen den afaria prestatzea euren tokatzen zaie. Ez da arratsaldean izanen duten egiteko bakarra, txatarrez jantzi, zigorra eskutan hartu eta haurren atzetik korrika ibiliko dira, batean eta bestean. Afaldu ondoren, kinto ospakizunak Altsasun despedituko dituzte.

ETXARRI ARANATZ

Kintoak eta kinto zaharrak parrandan

Aurtun 24 gazte etxarriar dira kinto: Ion Ansotegi, Mattin Alzelai, Anne Igoa, Antton Igoa, Araitz Jaka, Aritz Aristorena, Dinora Jaka, Igor Irigoien, Imanol Miranda, Iosu Jaka, Iruñe Lizarraga, Iñaki Agirre, Jon Kintana, Jon Palomares, Lander Bengoetxea, Leire Arraiza, Maddalen Mikeo, Nahia Okaña, Naroa Lasa, Oier Otxoa, Xabier Mauleon, Maria Senar, Ander Lakuntza eta Unai Pozueta.

Guztiak ere, aurreko urteetan bezala, abenduaren 31n etxez etxe eskean ibili ziren, kinto ospakizunetarako dirua lortzeko. Eta haien kinto ospakizunak ihoteetakoekin bat egin dute. Izan ere, aurreko hiru ostegunetan, Gizakunden, Andrekunden eta Garikunden, den-denak txatarraz jantzi eta batzuk etxez etxeko eskean ibili dira. Besteak, zigorrak eskuetan, haurren atzetik ibili dira korrika, haiek berotu asmoz. Korrikaldi eta eske

saioen ondoren jasotakoarekin afaltzera joan dira.

Etzi, zalduniyoteren, haurrendako jokoak antolatzeaz ere kintoak arduratuko dira.

Elkarrekin

Astelehen iluntzean aurtengo 24 kintoak eta joan den urteko 17 kinto zaharrak elkartu eta Iturri Ederren afalduko dute. Gauerdi Tolosarako autobusa hartu eta gaua han emanen dute. 08:00etarako buelta egingen dute eta ahal bezain goizter kalean izanen dira. Turrutxiki txarangak lagunduta herrian barna kalejira egingen dute kintoek eta, bide batez, eskean ibiltzeko baliatuko dute. Haiekin batera segizioa mozturrotutako makina bat haurrek osatuko dute. Herriari buelta eman eta gero, Borda jatetxean bazkalduko dute eta gero kintoek ihote ospakizunekin bat egingen dute.

BAKAIKU

Unai eta Unai, kintoak

Aurtengo kinto bakaikuarrak bi dira eta biek Unai izena dute. Batak Pozueta eta besteak Kintana dute abizena. Baina kinto segizioa ez dute biek osatuko, haiekin batera hiru kinto zahar eta hiru kinto gazte ibiliko dira. Bederatzikote bat. Bakarrekotea elkartean bazkaltzera elkartuko dira. Joan den urtetik gordetako diruarekin pagatuko dituzte haiek egindako bazkari-afariak. Bi otorduen artean poteoan ibiliko dira kintoak. Eta gauean parranda egingen dute, baina herrian edo Altsasun izanen den, momentuan erabakiko dute.

Larunbatean, hori bai, 10:00etarako kalean egon beharko dute. Kinto festak ordaintzeko diru-eskean ibiliko dira guztiak herrian barna, ateetan joz eta gurutzatzen dituzten herritarrei eta autoetako gidariei dirua eskatuz. Egiteko horretan trikitilariak eta pandero-jolea lagun izanen dituzte. Eta jasotakoagatik esker ona azaltzeko gazta edo txistorra eskainiko dituzte.

Egitekoa 13:30ean despedituko da. Bai aurtengo kintoak bai kinto zahar mordo bat autobusean sartu eta sagardotegi batera bazkaltzera joanen dira. Iluntzean bueltatuko dira handik eta parranda Altsasun segituko dute. Ihote ospakizunak despeditzeko bederatzikote Bakarrekotea elkartean afaltzera elkartuko dira.

ITURMENDI

Kintoak asmo berriekin

Aurtengo kinto iturmendiarrak hirukote bat osatzen dute: Josu Etxeberria, Jacob Samanes eta Fermin Azkargorta. Baina haiekin batera kinto segizioa aurreko bi urteetako kinto zaharrek eta heldu den bi urteetako kinto gazteek osatzen dute. Talde ederra, bertaz, elkarrekin parranda egiteko. Guztiak gaur arratsaldean elkartuko dira. Aritzaga elkartean afalduko dute eta han musika jarrita parranda ordu txikiak arte luzatuko dute.

Bihar, 11:00etan bildu eta elkartean gosalduko dute. Tripazuloa beteta, trikitilarien doinuak lagun dituztela etxez etxeko eskeari ekinen diote. Dirua ematen dietenei moskatela eta pastak eskainiko dizkioten esker ona azaltzeko. Eske-errondaren ondoren elkartean bazkalduko dute eta iluntzean Altsasura joanen dira kintoak dantzan ikustera. Han bertan afalduko eta parranda luzatuko dute. Aurtengo kintoen asmoa litzateke duela urte batzuk galdutako domekako kinto bazkaria berreskuratzea. Kintoak jakinaren gainean daude eta hari helzea da asmoa.

URDIAN

Bost kinto, eta gehiago, festarako prest

Ander Agirre, Andoni Ocaña, Gorka Sol, Ane Goñi eta Carla Benitez dira aurtengo kintoak. Haietako bat Katalunian bizi denez, ezin izan du ilbeltzaren 8tik izan diren Zortzikoren entseguetan parte hartu. Javier Zelaiaren esanetara astelehen, asteazken eta ostiraletan elkartu dira frontoian, iluntzeetan. Txistulari guztiekin eta ardoa eta guzti, entsegu orokorra atzo egin zuten. Eta duela bost bat urte sortutako ohiturari segituz, bart aurreneko parranda egin zuten kintoek. Baina aurtengo kintoak ez dira dantza entseguetan aritu diren bakarrik. Kinto izan zirela 25 urte bete dituzten urdiaindarrak ere ariko dira. Euren trebezia larunbat eguerdian erakutsiko dute.

Gaur bazkaltzera elkartuko dira bost kinto urdiaindarrak. Eta haiekin batera, kinto gazteak, kinto zaharrek eta beti-kintoak. Mahaitik jaso eta gero, trikitilariak aldamenen dituztela, herrian barna axuri baten zozketarako txartelak saltzen ibiliko dira. Hori dute kinto festako gastuak ordaintzeko moduetako bat. Afaldu eta gero frontoi azpiko lokalean, antroan, parranda eginen dute.

Larunbatean, antroan bertan bazkalduko dute eta handik aterata zozketarako txartelak saltzera baserrietara joanen dira. Trikitilariak jota eta porrusalda jo eta haiek aire horiek dantzatuko dituzte. Afaldu ondoren herriko gainontzeko kintadekin parranda egin edo Altsasura joan erabakiko dute.

Domekan kintoak goaltzera elkartuko dira. Eguerdiko mezaren ondoren, 12:30 aldera, kintoak eta bi kinto gazte (Beñat Mendez eta Eukene Perez) plaza aterako dira eta Zortzikoa dantzatuko dute. Egiteko horiek despedituta herriaren erdia diru eskea egingo dute. Bazkaldu ondoren, beste erdiaren txanda izanen da. Egiteko horretan ere musika lagun izanen dute. Afaldu ondoren ospakizuneko azken juergari ekinen diote.

ALTSASU

Oraindik bi kinto egun!

79 neska-mutilek osatzen dute aurtengo kintada. Astelehenaz geroztik beraiek dira Santa Ageda ospakizunetako protagonistak. Aurreneko egunean batzuk 05:30ean industrialdeetan eta gehienak 06:30ean eskean hasi ziren. Herria hartu zuten eta ahalegin horren fruitua izan zen bost festa egunak finantzatzeko jasotako 21.918 euroak. Diru hori Pantxika astoak eraman zuen. Haren gainean diruarendako jarritako zakutua Maribel Mazkianek egin zuen eta kintoek hura aurten mustu dute. Bazkari-afarrietan, parrandan joanen da dirutza, baina esker onez, astelehenetik bihar arte, 18:30etik 21:30era plazan kinto guztiek Zortziko bana dantzatuko dute. Herenegun izan ezin, atsedean hartu baitzuten. Haiekin batera kinto izan zirela 25 eta 50 urte eta 60 urte bete dituzte kintadak festara batu ziren.



Olaztin ilbeltzaren 31ean elkartutako kintoak. UTZITAKOIA

Arratsaldeko dantza saioak aspaldi gizarte gertakari bat dira. Hasi jantzetatik. Kinto askok senideren baten kinto garaiko zapi, praka, gona edo dena delakoa du. Kinto bakoitzak dantzara pertsona bat gonbidatzen du ere eta hor familia omenaldiak edo lagun arteko keinuak eta aitortzak dira nagusi. Dantzak ikustera, jakina, kintoen senideak eta lagunak joaten dira. Baina baita plazan sortutako giroa erakarririk hainbat jende ere. Aurtengo dantzako berrikuntza ere bada Zortzikoko bikote bat mistoa izan dela, gainontzekoak genero berekoek osatu baitute.

Aurtengo kintoek gaurkoa eta biharkoa dute gozatzeko oraindik. Baina bihar ez dira bakarrik egonen. Santa Ageda ospakizunera herri guztia batuko zaialako. Bakoitzak bere kintadarekin ospatuko du festa. Denak bazkaldu aurretik poteatzera elkartuko dira eta gero nor bere kintadarekin mahaira eseriko da. Altsasun guztiendako nahikoa toki ez dagoenez, askok autobusa hartu beharko dute. Bueltan festak ordu txikiak arte segituko du.

ZIORDIA

Hiru egunetako kinto ospakizunak

Markel Mendoza, Oier Otxoa eta Ailetz Lasa dira Ziordiko




Altsasun, astelehenean zortzikoa dantzatu zuten.

aurtengo kintoak. Hirurekin batera beste hiru kinto zahar eta bi kinto gazte izanen dira ospakizuneko protagonistak. Zortziak Errekakartea elkartean bazkaltzera elkartuko dira. Mahaitik jaso eta poteoan ibiliko dira. Altsasuko kintoak dantzan ikusi ondoren, atzera ere, herrian, elkartean afalduko dute eta gaua Altsasun parranda egin ez despedituko dute. Aurreneko jatekoak joan den urtean gorde zutenarekin pagatuko dute.

Larunbat eguerdian kalera aterako dira zortziak. Etxez

etxeko eskeari ekinen diote, trikitilarien doinuak lagun dituztela. Dirua ematen dieten guztiei zahatoa eskainiko diote, tragoa edan dezan. Lanak despedituta elkartean bazkaria prestatu eta bazkalduko dute. Arratsaldean herrian barna ibiliko dira. Beste kinto zaharrek batera afaldu eta eguna Altsasun despedituko dute. Domekan, azkenik, Urbasa tabernan bazkalduko dute kintoek, eta ondoren, arratsalde pasa, poteoan ariko dira.



ESKELAK JARTZEKO:
948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Ander Lopez de Gereñu Miguel**, ilbeltzaren 8an Altsasun.
- **Luka Martinez Reparaz**, ilbeltzaren 26an Altsasun.
- **Alana Valentina Rivera Ipanaque**, ilbeltzaren 27an Irurtzunen.
- **Anas Ekaitz El Harda Hernandez**, ilbeltzaren 27an Altsasun.
- **Luar Eskisabel Larrañaga**, otsailaren 1ean Bakaikun.
- **Nagore Hurtado Villamayor**, otsailaren 2an Irurtzunen.


HERIOTZAK

- **Maria Rosa Urkizu**, otsailaren 3an Iturmendin.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 9




Goizean izotzarekin esnatuko gara, tenperatura oso baxuekin. Baina hodeiak berehala ugaritzen joango dira eta arratsalderako elurra izango dugu.

Larunbata, 10



Goiz partean elurra izango dugun arren, pixkanaka elur-maila igotzen joango da, 1000 metroan kokatu arte. Hala ere, prezipitazio ugarirekin igaroko dugu eguna.

Igandea, 11



Temperaturak gora egingo du igandearrekin. Etengabeko euri zaparradak espero ditugu, baina ez lasaitu, eguna aurrera joan ahala, elur-maila jaitxi egingo da eta.

Astelehena, 12



Temperaturaren jaitsierarekin, prezipitazioa elur moduan izango da. Ipar haizea izango da gure bazterretan protagonista eta hotz sententzia nabaria izango da.

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Munduko sukaldaritza. Altsasuko Inbostiapuntan, Javi "Trapero" ren esku. Otsailak 21, marxoak 21 eta apirilak 11, 18 eta 25. 24 euro, 8 saio.

OHARRAK

Odol-emaileak. Altsasu: Otsailaren 27an eta 28an, 17:00-20:30. Marxoaren 1ean, 17:00-20:30; marxoaren 2an, 9:30-13:00.

Etxarriko irakurle taldea. Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegiren, Elsa Sheelen (1969 Lur) liburuar buruz hizketazera elkartuko da udal liburategian marxoaren 8an, ostegunean, 19:00etan.

Otadiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokiaren edo herriko banku eta kutxetan zabalduzako kontuetan sartu daitezke.

GoEner Iruñean. Landa-errek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslari-eriek aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakan-darrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal

legearen aplikazio horri elkartzanendako duen kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

3MBK kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin dituzke ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Azulana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabi) telefonotara hots egin dezatela.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariaren Elkartek

langabeei eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

3MBK kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin dituzke ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Auditorioa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. **ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

40 tanatorios
IRACHE
aniversario
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

f Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 9

ARBIZU Pasaiako badia dokumentalaren emanaldia eta aurkezpena.

18:00etan, Argi Bidea elkartearen.

ETXARRI ARANATZ *Memorias de Lacalle* argazki liburuaren aurkezpena Joxe Lacallek.

18:30ean, gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.

19:00etan, Kale Nagusiko 7..

ALTSASU Momotxorroen dantzaren entsegua.

19:00etan, Intxostiapuntan.

OLATZAGUTIA Herriko ihoteei buruzko dokumentala.

19:30ean, kultur etxean.

LAKUNTZA Sakana Zart eta Addams familia taldeen bertso-saioa, Bardoak 2018 bertso ekimeneko saioa.

20:00etan, Sorginak tabernan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *El gran showman* filmaren emanaldia.

22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 10

ALTSASU Altsasu eta Gasteiz arteko 107 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek.

9:30ean, San Juan plazatik.

ALTSASU Zortziko erraldoia.

Altsasukoak Aske herri-
asanbladak antolatuta.

12:30ean, lortia kultur gune parean.

ARRUAZU AHTri buruzko informazio hitzaldia.

17:00etan, udaletxean.

IGANDEA 11

URBASA Sakanako elurraren eguna. Ostirala da izena emateko azken eguna: 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus.

08:30ean edo 10:30ean, Altsasuko suhiltzaileen pareko aparkalekutik.

ALTSASU Txurruko puntara 46 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.

09:00etan, klubeko bajeratik.

ALTSASU *El gran showman*

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 12

SAKANA Sakana Trenaren Alde taldearen asteroko bilera.

19:00etan, LABen egoitzan.

ASTEARTEA 13

ETXARRI ARANATZ Torturarik ez! AEMk deitutako kontzentrazioa.

19:30ean, plazan.

ASTEAZKENA 14

URDIAIN AHTri buruzko informazio hitzaldia. 1

9:00etan, herriaren etxean.

OSTEGUNA 15

ALTSASU *Que baje dios y lo vea* filmaren emanaldia.

19:00ean, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA AHTri buruzko informazio hitzaldia.

19:30ean, kultur etxean.

Argazki-liburu aurkezpena gaztetxean

ETXARRI ARANATZ

Joxe Lacalle Egin egunkariko argazkilari izandakoak berak ateratako argazki bilduma argitaratu berri du: *Memorias de Lacalle* (2017, Txalaparta). Liburuak aurreko mendeko azken hiru hamarkadetako eta mende honetako aurreneko hamarkadako hainbat gizarte borroketa-ko irudiak jasotzen ditu, esaterako: abortatzeko eskubidearen aldeko ekimen feministak, insumisioa, Leitzarango autobia-aren kontrako borroka, Itoitz, Aranguren, Bardeak, euskal preso eta iheslarien aldeko ekimenak, okupazioaren aldekoak... Garai bateko irudiak, baina aktualitateko gaiak asko eta asko.

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatutako liburu aurkezpenean Lacalle bera izanen da, gaur, 18:30ean, gaztetxean. Aurkezpen ekitaldia bera, "be-launaldi desberdinetako etxarriarrak elkartzeko eta atzoko eta gaurko herri mugimenduen inguruko esperientziak eta hausnarketak partekatzeko" baliagarria izanen dela uste dute antolatzaileek. Eztabaida "herri mugimenduetan eskarmentu luzea duten herritarren eta gazteen artean" animatu nahi dute.



ALTSASU Altsasuko inauteriak erakusketa prestatu du Inauteri batzordeak.

Otsailaren 18ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.



Zure iragarri laburra gure
Merkatu txikian

948 56 42 75

iragarriak@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarriak





Ezkurdia eta Zabaleta, Artola eta Zabalarekin, asteazkeneko material aukeraketan. ASPÉ

Finalerdiak eskura

PILOTA Binakako Txapelketako azken jardunaldian garaipen garrantzitsuak lortu eta gero, Altunak eta Martijak 7 puntu dituzte eta Ezkurdiak eta Zabaletak 6. Asteburu honetan irabaziz gero, hanka erdia finalerdietan izango dute gure pilotariak

Binakako Txapelketako finalerdietan egoteko bidean daude pilotari sakandarrak. Altunak eta Julen Martija etxeberriarrak zazpigarren puntua lortu zuten Urrutiri eta Untoriari 11 eta 22 irabazi eta gero, eta Ezkurdiak eta Zabaletak pausu erraldoia eman zuten, Olaizolari eta Imazi 21 eta 22 irabazi eta euren seigarren puntua lortu eta gero.

Altuna eta Martija bide onera

Bi jardunaldi jarraian irabazi gabe egon eta gero, garaipenaren xenda berreskuratu zuten Altunak eta Julen Martijak. Urrutikoetxea eta Untoria izan zituzten aurkari. Aspekoez merezitako garaipena lortu zuten, Asegarcekoak baino askoz hobe aritu baitziren. Aldea atera zuten, abantaila hori bikain kudeatu zuten eta, 22 eta 11 irabazita, zazpigarren puntua bildu zuten.

Aspaldiko partidari onena

Bitartean, Labriten, pilota zaleek diotenez aspaldiko denboran ikusi den partidari onena eskaini zuten Ezkurdiak, Zabaletak, Aimar Olaizolak eta Imazek. Bombonera lehertzeaz zegoela, 1.200 pilota zalek gozatu ederra hartu zuten. Olaizola bizi-bizi hasi zen, eta 10 eta 1 aurreratu ziren Asegarcekoak. Baina Zabaleta atzeko koadroetan agintzen hasi zen eta sekulako erremondata lortu zuten pilotari sakandarrak. Hamaseira berdindu eta gero, hortik aurrera izugarri gogortu zen partida. Imaz leher-

**EZKURDIA-ZABALETAK
ETA OLAIZOLA-IMAZEK
JOKATUTAKO PARTIDA
ASPALDIKO ONENA
IZAN ZEN**

tzea, hori izan zen sakandarren estrategia eta ongi atera zitzaizen, Olaizola neutralizatzea lortu baitzuten. 17 eta 20 aurreratu ziren sakandarrak, baina Olaizola azeri zaharra da eta 21 eta 20 aurreratzeko lortu zuten Asegarcekoak. Bihotzekoak emateko moduko bukaeran, sakandarrak 21era berdintzea lortu zuten eta, azken tantoa boleaz lortu zuten Ezkurdiak. Urrezko balioa duen 6. puntua lortu zuten.

Dena dago erabakitzeke

Binakako hasierako ligaxka despeditzeko hiru jardunaldien faltan, guztia argitzeko dago. Azkenera arte emozioa izango du txapelketak, pilota zaleek ezin dute gehiago eskatu. Elezkano eta Rezusta dagoeneko finalerdietarako sailkatuta daude, 9 punturekin, baina gainontzeko 3 bikoak nortzuk izango

diren ez dago jakiterik. Altuna III.ak eta Martijak aukera asko dituzte, 7 puntu baitituzte. Olaizola II.a-Imazek eta Ezkurdiak-Zabaletak seina puntu dituzte, Urrutikoetxea-Galarzak bost eta Laso-Albisuk eta Irribarria-Merino II.ak launa puntu. Bukatzeko, Bengoetxea VI.ak eta Larunbek hiru puntu dituzte. Hortaz, lehia betea espero da.

Zabaleta: "Gure benetako mailara gerturatzeko ari gara"

Ezkurdiak eta Zabaletak Urrutikoetxea eta Galarza ordezkaturiko dituzten Artola eta Zabala izango dituzte aurkari igandean Tafallan. Konpromiso latza dute azken hauek. Ordezkoak dira Urrutik eta Galarzak behar-beharrezkoa den puntua jokoan dutenean. Izan ere, igandeko partida galduz gero, finalerdietara sailkatzeko aukerarik gabe geratuko da Asegarceko bikoia.

Beste aldean, txapelketan behetik gora egiten ari diren Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaleta daude. Material aukeraketan, Zabaletak une gozoan daudela aipatu zuen. "Azkeneko hiruzpalau partidatan lan ona egiten ari gara. Jokoa hobetu dugu eta gure benetako mailara gerturatzeko ari gara. Igandean irabaziz gero eta gainontzekoen emaitzen arabera, finalerdietarako sailkatu gaitezke. Dena den, guk soilik gure lana egitea, hori da buruan duguna" azpimarratu zuen. Artola fresko dagoela, hori argi du. "Lesioaren ondotik Artola nola dagoen ez dakigu, dakiguna da fresko egongo dela, partida ona egiteko gogoekin. Finean, partida oso konplikatu eta garrantzitsua da guretzat" aitortu zuen sakandarrak.

Altunak eta Martijak burua Tolosan

Finalerdietarako sailkatzeko aukerarik gabe dauden Bengoetxea VI.a eta Larunbe izango dituzte aurkari Altuna III.ak eta Martijak asteartean inauterietan murgildua egongo den Tolosan jokatuko den partidatan. Zortzigarren puntua lortzeko aukera bikaina dute, baina Oinatzek

**TOLOSAKO PARTIDA
BURUAN, HANKA
ERDIA FINALERDIETAN
DUTE ALTUNAK ETA
MARTIJAK**

Binakakoa: 12. jarduna

Asteburuko partidak

- **Olaizola II.-Imaz / Irribarria-Jaunarena** (larunbatean, 17:45ean, Labriten. ETB1)
- **Artola-Zabala / Ezkurdiak-Zabaleta** (igandean, 17:00etan, Tafallan. ETB1)
- **Elezkano II.a-Rezusta / Laso-Albisu** (astelehenean, 16:30ean, Tolosan. ETB1)
- **Bengoetxea VI.a-Larunbe / Altuna III.a-Martija** (asteartean, 16:30ean, Tolosan. ETB1)



Martija eta Altuna, pozik. UTZITAKOIA

eta Larunbek ez dizkiete gauzak batere erraztuko eta partida gogorra izango dela diote pilota zaleek.

Promesak: Bakaikoa aukerarik gabe

Promesen Binakako 6. jardunaldia dago jokoan asteburuan, azken aurrekoa. Joanes Bakakoak eta Etchegoinen larunbatean Dario eta Irusta izanen dituzte arerio, Labriten. Finalerdietara pasatzeko aukerarik gabe daude, soilik puntu bat baitute. Igandean Larrainzarren Etcheberria eta Jaunenaren kontra jokatzeak ziren, baina puntua azken hauei eman zieten, Etchegoin bera eta bere ordezkaria, Urretabizkaia II.a, jokatzeke moduan ez zeudelako.



Fernando Urrea olaztiarrak primerako denboraldia egin zuen 2017an. Txapelketako azken etapan lortu zuen garaipena. FERNANDO URRA

Urrea, Espainiako txapelduna bigarrenenez

AUTOMOBILISMOA / SUPERMOTARD 2017ko Espainiako Supermotard Txapelketako SM Master mailako txapeldunaren saria jaso zuen Fernando Urrea pilotuak larunbatean. Aurten Europako Supermotard Txapelketako bi probatan aritzeko asmoa du olaztiarrak

Aurreko larunbatean Fernando Urrea 2017ko Espainiako Supermotard Txapelketako SM Master mailako txapeldunaren saria jaso zuen, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan burututako ekitaldian. Horretaz gain, 2017an Olaztik pilotuak modalitate berebereko Kataluniako Txapelketako lehen postua lortu zuen, SM3 mailan. Iazkoa denboraldi

bikaina izan da Urrarendako eta, egun, Espainiako Supermotard Txapelketako SM Master mailako txapeldun bikoitza da.

Jose Luis Hernandezekin lehia oso estua

Aurtengo Espainiako Supermotard Txapelketa oso estua izan da. Azkeneko lasterketara soilik 5 puntuko aldearekin iritsi ziren

Fernando Urrea (257 puntu) eta bere arerio nagusia, Jose Luis Hernandez (252 puntu). Azkeneko proba Leonen jokatu zen, La Bañezan prestatutako zirkuitu ikusgarrian. Zirkuituko trazatuekin arriskatu egin zuen antolakuntzak, eta aurrerapenak egitea lan oso nekeza izan zen pilotuendako. Hiru manga osatu behar izan zituzten pilotuek,

eta lehendabizikoan eta bigarrenengan gauzak ez ziren ongi joan Fernando Urrarendako. Lehen postua galdu zuen Urrak, Hernandezek bi mangak irabazi zituelako eta Urrea bigarrena sartu zelako. Nahiz eta Hernandez baina azkarrago joan, zirkuitu horretan oso zaila izan zen aurreratzea, eta saiakera horretan erorketaren bat eta guzti izan zuen olaztiarrak. Hirugarren mangan, Hernandez 5 puntu aurretik zuela, irabaztea eta arerioa hirugarrena sailkatzea zen Urraren aukera bakarra txapelketa irabazi ahal izateko. Dena eman zuen olaztiarrak, ongi atera zitzaion eta proba irabazteaz gain arerioa hirugarrena sailkatu zenez, Espainiako Txapelketa lortu zuen.

Leongo proba txapelketako azkena izan zen, baina, aurretik, Alcarrás (Lleida) zirkuituan

bitan lehiatu zen olaztiarra. Maiatza hasieran jokaturako probako hiru mangak irabazi zituen Urrak eta maiatza bukatuaren jokaturako 3 mangetatik lehenean bigarrena izan zen eta beste bitan, aldiz, hirugarrena. Jerez de la Fronteran (Cadiz) jokaturako lasterketan 40 graduko tenperaturarekin lehiatu behar izan zuten pilotuek, eta manga batean lehena eta beste bitan bigarrena sailkatu zen olaztiarra. Horretaz gain, Galiziako Pontevedrako Forcarein euripean lehiatu behar izan zuten pilotuek, lainopean. Bi bigarren postu eta lehen postu bat lortu zituen bertan. Txapelketa, esan bezala, Leongo La Bañezak erabaki zuen, olaztiarraren alde.

2018ko asmoak

Aurten, 2018 denboraldian, Europako Supermotard Txapelketako bi probatan ariko da Fernando Urrea pilotu olaztiarra, Valentzian eta Andorran jokatuko direlako. Gainontzeko probak Italian, Grezian eta Polonian jokatuko dira, eta bertan ez du aritzerik izanen, aurrekontu eta azpiegitura kontuengatik.

Horretaz gain, Espainiako Supermotard Txapelketan ariko da beste behin, bere Husqvarna FS 450 motorrarekin. Ea hirugarren txapelketa lortzerik duen. Ikusita iaz txapelketa estu egon zela, aurtengoa ere lehiatua izango dela espero da eta ongi prestatu beharko du Urrak.

EUROPAKO BI PROBA VALENTZIAN ETA ANDORRAN JOKATUKO DIRA ETA BERTAN ARITU NAHI DU URRAK

Elurraren Eguna otsailaren 18ra atzeratu du Mankomunitateak

ESKIA Elurbuserako eta eski eta erraketa ibilbideetarako izena ematea 16raino luzatu da

Elurra egin duela ikusita, Sakanako Mankomunitateak, hainbat talderen laguntzarekin, Elurraren Eguna igande honetan, otsailaren 11n egitea aurreikusi zuen, Urbanan. Baina atzoko eguraldi iragarpenaren datuak aintzat

hartuta, Elurraren Eguna hurrengo igandera, otsailaren 18ra atzeratzea erabaki dute, eguraldi txarra iragarri baitute. "Egunon bat pasatzeko, eguraldi eta baldintza hobekoak egon ahal direlako, Elurraren Eguna otsai-

laren 11tik 18ra atzeratzea erabaki da. Barkatu eragozpenak eta ondo izan" adierazi du Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Ibilbide gidatuak eta beste

Elurraren egunari esker, ondo jarduerak egiteko aukera izango da Urbanan, otsailaren 18an: ipar eski eta erraketa ibilbideak (maila ezberdinak, Manken galdetu), musherren erakustaldia lerako txakurrekin eta, horretaz gain, norberak bere

kabuz egin ahal dituenak: Urbanan paseoak egin, trineoekin ibili, argazkiak atera, paisaiak gozatu... nahi dena.

Urbanan-Andia Ipar Eski Lagunak taldeak Otxoportillotik Eskizako saraira bitarteko 5 km-ko pista prestatzen dute makinekin, eskiatu edo lera txakurrekin ibili ahal izateko.

Elurbusa

Elurraren egunaz behar bezala disfrutatzeke, otsailaren 18rako Elurbusa antolatuta dute. Elurra-

rekin Urbanan sortzen diren aparkatzeko arazoak saihestuko dira horrela. Autobusa Altsasutik aterako da, Suhiltzaileen egoitza paretik, goizeko 8:30ean eta 10:30ean. Itzulera orduak 12:30ean eta 14:00etan izanen dira, Urbanako kanpinetik.

Izena emateko

Elurbuserako eta ibilbideetarako izena ematea zabalik dago, otsailaren 16ra arte, Mankomunitatean (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).



Izaskun Beunza.

Izaskun Beunza 6.a Nafarroako Kros Luzean

ATLETISMOA Tuteran jokotutako proban txukun aritu zen olaztiarra. Iraitz Senar 52.a sartu zen

Igandean Tuterako krosa jokatu zen, aldi berean Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa zena (9,7 km). Emakumezkoetan Aicha Banik irabazi zuen Santa Quiterian jokotutako lasterketan (35:11), baina helmugan bigarrena sartu zen Amaia Melero izan zen Nafarroako txapelduna (36:44). Beste Iruña taldean dabilen Izaskun Beunza olaztiarra seigarrena izan zen (38:40).

Gizonezkoetan Ivan Aceredak irabazi zuen (30:30) eta bera izan zen Nafarroako txapelduna. Iraitz Senar lakuntzarra (Beste Iruña) 52.a sartu zen (36:18).

Bestalde, igandean Donostiako 88. Nazioarteko Erregeen Krosa jokatu zen (10 km). Carlos Mayo madrildarra gailendu zen proba osatu zuten 301 korrikalarien artean (29:53). Israel Arbizu etxarriarra 51.a sailkatu zen (34:53), Mikel Berdud altsasuarra 66.a (35:53), Ivan Sobredo altsasuarra 77.a (36:18) eta Juan Luis Maiza etxarriarra 97.a (37:36).

Negu Trail

Berasategiko Negu Trail lasterketa (16,3 km) 210 korrikalarik osatu zuten, Jokin Lizeaga (1:35:54) eta Verónica Dominguez (1:55:59) buru zirela. Iker Flores 32.a iritsi zen helmugara (1:47:32) eta Aitor Hernaiz 68.a (1:55:50).

Perez eta Lapuente ahizpak, txapeldunak

IRRISTAKETA Nafarroako Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketako 2. jardunaldia jokatu zen San Juan klubeko instalazioetan eta lan bikaina egin zuten irristalari sakandarrek. Urkizar, Gomez eta Villalobos ere oso fin ibili ziren

Ilbeltzaren 28an Nafarroako Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketako 2. jardunaldia jokatu zen Iruñean, San Juan klubeko instalazioetan. Iristalariak zurezko tarima gainean lehiatu ziren eta lasterketa ikusgarriak eskaini zituzten. Tartean, Sakana Patin Iristaketa taldeko irristalariak aritu ziren.

Irristalari sakandarren lana

Aurrebenjamin mailan Sakana Patin taldeko Enara Pérez Barennetxeak proba irabazi zuen eta benjaminetan Sakana Patin taldeko Jon Urkizar Estibariz tolosarra hirugarrena sailkatu zen. Kimuen mailan, emakumezkoetan Sakana Patin taldeko Iratxe Lapuente Perez ziordiarra txapelduna izan zen eta gizonezkoetan, Sakana Patin taldeko Iker Gomez Lopez de Goikoetxea hirugarrena sartu zen helmugara.

Emakumezkoen jubenilen mailan Lagunak taldean dabilen



Maila bikaina eman zuten San Juanen aritu ziren sakandarrak. SAKANA PATIN

BIHAR INDOOR TXAPELKETAKO 3. JARDUNALDIA JOKATUKO DA ANTZOAINEN

Anne Lapuente Perez ziordiarrek garaipen garrantzitsua lortu zuen eta gizonezkoen junior mailan Lagunak taldean dabilen Unai Villalobos Hernazek bigarren postuan gurutzatu zuen helmuga.



Bi sakandar ahalegin betean. SAKANA PATIN

Larunbatean, otsailaren 10ean, Nafarroako Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketako 3. jardunaldia jokatu da Antsoaineko Udal Kiroldegian, goizeko 10:00etatik aurrera, eta bertan ariko dira gure irristalariak.

BEHE RAPE NAK

beleixeguaixe

Errenta aitortpena %80

Bazkidearen kit-a

Guaixe Fundazioa, Foru plaza 23-1, 948 564 275 / 948 562 107, fundazioa@guaixe.eus



Agurra emateko deitutako prentsaurrekoan taldekide guztiak, presidentea eta entrenatzailea izan zituen alboan Eseverrik. XOTA

Eseverrik Osasuna Magna utziko du

ARETO FUTBOLA Otsagikoak 23 denboraldi egingo ditu jokalaririk profesionala dela, guztiak Irurtzongo Xota klubarekin. Palmarés bikaina du, Nafarroako areto futbol jokalaririk onena da eta goi goian dagoela utziko du areto futbola

Osasuna Magna Xotako kapitainak, Javi Eseverrik, denboraldi bukaeran taldea utziko duela iragarri zuen ostiralean, prentsaurreko berezian. Otsagiko jokalaririk onena izan den alboan albis-tea ematerako unean. 40 urte ditu Eseverrik, eta arrakastaz beteriko ibilbidea bertan behera uzteko tenorea iritsi dela

erabaki du. “Aspaldi areto futbola noiz utzi neraman buruan, baina uda bukatuta hartu nuen erabakia. Lasaitasunez hartu dut, izan ere urteek ez dute barkatzen, eta eguna iritsi da” aipatu zuen kapitain handiak, hunkituta.

Javi Eseverrik Xotan hasi eta despedituko du bere ibilbidea. 23 urtez izan da profesional Irur-

tzungo taldearekin. “Une gogorra da, gazi-goza, baina uste dut onena dela. Ongi nago fisikoki, eta jarraitzeko aukera izango nukeen, baina unea iritsi da” berretsi zuen.

Xota, "nire etxea"

Tatono Arregi presidente irurtzundarrak Otsagikoaren ibilbidea goraipatu zuen. “Kirolari

diren orendako ispilua da” zioen. Izan ere, Javi Eseverrik estatuko areto futbol jokalaririk onenetakoa izan da. Talde askok nahi izan dute Otsagikoa fitxatu, baina berak Xotan egon nahi izan du beti. “Diruaren gaitetik dauden gauzak daude; ni hemen zoriontsua izan nahiz eta zoriontsu izaten jarraitzen dut; hau da nire etxea” aitortu zuen kapitainak. Imanol Arregi entrenatzaileak, bere aldetik, Eseverriren baja “bete ezina” izan-go zela onartu zuen. “Urte bat gehiago jarraitu ahalko zuela aipatu nion, baina bere erabakia da eta errespetatzen dut” gaineratu zuen. Eseverrik aitortu zuen bere etorkizuna Xota klubari “lotuta” egongo dela.

Palmarés ikusgarria

1995. urtean debutatu zuen Eseverrik, Xotan. Ordutik, Espainiako Kopa 12 aldiz jokatu du, titulua erabakitzeke play-offetan bi aldiz jokatu du, Zilarrezko mailako txapelketa izan da (97-98), Zilarrezko Mailako Kopa irabazi du (97-98), eta Ohorezko mailako ligako txapelketa 809-10) eta Errege Kopako txapelketa (16-17) izan da.


Espainiako selekzioarekin 67 partida jokatu ditu Eseverrik, Europako bi txapelketa irabazi (2007, 2010) eta Brasilgo Mundialeko txapelketa (2008) izan da. 2006. urtean Ohorezko Mailako hegal-atzelari onena aukeratu zuten.

Triku Trail mendi lasterketarako izena ematea zabalik

MENDI LASTERKETAK Gaur, ostiralean, 8:00etan zabaldu da eta tramitea aurki egiteko gomendioa egin dute

San Juan egunean, ekainaren 24an jokatu da V. Triku Trail mendi lasterketa, Triku Trail taldeak mimo handiz prestatzen duen mendi lasterketa. 21 kilometroko proba da, 1.400 metro positiboko desnibelarekin, Etxarri Aranazko kanping inguruko paraje zoragarrietan jokatzeko dena.

Nafarroako txapelketa izango da Arrakasta eta parte-hartze handia du probak eta aurten, Euskal Mendi Federazioko lasterketen ranking berrirako puntuagarria



350 korrikalariendako tokia dago.

izango denez eta Nafarroako Txapelketa bertan jokatu denez, parte-hartze handiagora espero da. Kontuan hartuta probak 350 korrikalariren parte-hartzeke muga duela eta toki horiek betetzen direla, lehenbailehen izena emateko gomendioa egin die antolakuntzak korrikalariari.

www.kirolprobak.com

Izena ematea gaur zabaldu da, otsailaren 9an, goizeko 8:00etan eta ekainaren 8ra arte edo 350 tokiak bete arte egongo da zabalik www.kirolprobak.com web gunean. Txip horidun federatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte, txip horidun gabeko federatuek 22 euro, txip horidun federatu gabekoek 23 euro eta txip horidun gabeko eta federatu gabekoek 24 euro.

TXIRRINDULARITZA Aralar taldearen aurkezpena igandean Arbizun

Aralar Txirrindularitza Klubak 2018 denboraldiko aurkezpena igandean egingen du, Arbizun. San Juan baselizan jarri dute hitzordua, 12:00etan, talde argazkiak ateratzeko. Ondoren Arbizuko udaletxean bilduko dira, txirrindulariei 2017 denboraldiko sari banaketa egiteko eta, segidan, 2018 denboraldiko nondik norako berri emateko.

Aurten 40 urte beteko ditu Lakuntzan jaiotako txirrindularitza taldeak. 2018 denboraldian 53 txirrindulari trebatuko dira, 12 entrenatzailearen esanetara, Aralar klubeko Intersport Irabia taldeetan. Aurten bost txirrindularitza proba antolatuko ditu klubak.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Urrozarra – Lagun Artea	4-2
Doneztebe – Etxarri Aranatz	2-1

SAILKAPENA	
1. Lagunak	36
12. Lagun Artea	15
16. Etxarri Aranatz	13

PARTIDUAK	
OTSAILAREN 18AN	
Zehaztu gabe: Lagun Artea – Doneztebe Lakuntzan	
Zehaztu gabe: Etxarri – Lagunak Etxarri	

Unaik Lagun aurreratu zuen, baina lau gol sartu zituen Urrozarrak. Enekok Lagunen bigarrena egin zuen eta horrela bukatu zen partida. Lehia ederrean, bi gol sartu zituen Doneztebek eta nahiz eta Saez de Asteasuk gola lortu, 3 puntuak han geratu ziren. Asteburuan ez dago jardunaldirik.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Gazte Berriak – Altsasu	0-2

SAILKAPENA	
1. Pamplona B	33
6. Altsasu	26

PARTIDUAK	
OTSAILAREN 18AN	
Zehaztu gabe Altsasu – Pamplona Altsasu	
Nahiz eta Gaztek dominatu, Lizarragak Altsasu aurreratu zuen eta 2. zatian Imanol Lobok bigarrena sartu zuen. Asteburuan ez dago jardunaldirik.	

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Kirol Sport – Altsasu	4-0

SAILKAPENA	
1. Berriozar	49
14. Altsasu	11

PARTIDUAK	
OTSAILAREN 18AN	
Zehaztu gabe Altsasu – Burladés Altsasu	
Orkoiaren, Kirol Sportek garaipen garrantzitsua lortu zuen. Asteburuan honetan ez da jardunaldirik jokatu.	

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Bidezarra – Zaldua	1-1

SAILKAPENA	
1. Unziti	40
4. Zaldua	24

PARTIDUAK	
OTSAILAREN 18AN	
Zehaztu gabe	
Asteburuan ez da jardunaldirik jokatu.	



TIM TREGENZA

Merezi al dugu Iruña-Veleia?

JOSE LUIS ERDOZIA ETXARRI ARANATZ

Hamar urte pasa, dagoeneko, grafito ditxosozkoak agertu zirenetik Gasteiz ondoan.

Nolako “lanak” eman zituen aipatu agertzeak hasiera hartan! Nolako poza euskaldunondako halako aurkikuntza “zazpigarren alabarenean” gertatu izanagatik! Zenbait teoria “zientifiko” eta interesatu, bat-batean pikutara joan zitekeela pentsatze hutsak eragindako poz ikaragarria! Baina, euskaldunon baratzean ezin luzaroan barazkirik baino ez izaterik, eta ia berehala hasi ziren bestelako belarrak ere hazten, ureztatze eta ongarrri hoberenekin lagundurik. Eta horrela hartu zuen Iruña-Veleia aferak egunkarietako azaletan, ia gehienetan, bere tokia lehen urteetan eta euskaldun gehienok aho bete hortz geratu ginen. Gozokia ahoko zuloan dastatu bezain laster, pozoina zela gaztigatu ziguten zenbait erakundetatik (Arabako Aldundia, EHUko euskal filologiako eta historiako kide esanguratsuak...). Eta gainerako euskal erakunde guztiak mutu, isil, eguraldia hizpide, kasurik hoberenean ere!

Oinezko euskal herritar gehienak harri eta zur, ezin ulerturik grafitoen berri izan eta berehala, nola agertu ziren gertaera honen garrantzia azpimarratuz, komunikabideetan, geroxeago horiek faltsutako emanen zituzten “adituak”. Hori al da aditu batek, edozein dela ere bere jakintza arloa, burutu beharreko ibilbide edo azterbide “zientifiko”?

Aurkikuntzaren emozioak itsutu, lau haizetara zabaldu, eta ondoren aurkikuntzaren subjektua aztertzeari ekin? Emozioaren aitzakia izan balitz, sikiera, barkatzeko modukoa zatekeen eta “aditu” horiek izan beharko ziratekeen interesatuena, haiek ez eta beste aditu objektibo edo inpartzial batzuen eskuetan uzteko aurkitutakoak, lehenbailehen aztertu eta haien iritzia emateko. Baina, ez! Hasierako “adituak” eta haien kideak hasi ziren grafitoak faltsuak zirelako arrazoiak plazaratzen. Eta bai arrazoi bitxiak eman ere, grafitoak faltsuak zirela ondorioztatzeko. Horietako batek “Eusko label” idatzita zuela esatea falta izan zitzaie ia. Arrazoi horiek eta ez beste batzuk baldin badira, behintzat, Iruña-Veleiako grafitoak faltsuak direla esateko, ez da dudarik aurkitu zituzten arkeologoen ez zutela inolako iruzurrik egin eta oso aurkikuntza garrantzitsu baten aurrean gaudela euskararen historiaren aldetik gutxienik. Hala erakutsi zuen 2011n Miguel Thomson ikerlari eta ebaluatzaile zientifiko madrildarrak. Grafitoak faltsuak direla esateko “aditu” horiek emandako arrazoi edo froga horietako batzuk baino ez ditut orain gogoratuko (guztiak ezagutu nahi dituenak, Thomson-en txostena irakur dezake euskararenjatorria.eus web orrian), horiek baitziren afera jarraitu zuten oinezko euskaldun gehienek aipatzen zituztenak orduko hartan. Eta aditza iraganean erabili dut propio aurreko esaldian, ezen

egun ematen du ez dela dagoeneko inoren kezka (Euskararen jatorria erakundeak kanpo, jakina) Iruña-Veleiako afera. “Descartes”. XVII. mendeko filosofoaren izena irakurri zuten Iruña-Veleiako ostraka batean Joaquín Gorrochategui-k (EHUko katedraduna), Isabel Velázquez-ek (Madrileko Unibertsitate Complutenseko Latin filologiako katedraduna), Pilar Ciprés-ek (EHUko Antzinako historiako irakaslea) eta Santos Yanguas-ek (EHUko Antzinako historiako katedraduna). Niscart da, Thomson-en arabera (inola ere ez, behintzat, Descartes), ostrakak idatzita ageri duen izena. “Deidre”. Izen modernoa omen Gorrochategui, Ciprés, Santos Yanguas eta Julio Núñez-endako (EHUko Arkeologiako irakasle titularra) eta, horregatik, ezinezkoa III. mendean agertzea. Irlandako jatorrizko Deidre baten bilakabidea dela diote. Thomson-ek frogatu zuten ohikoak direla behin bakarrik agertu diren inskripzio latinoak (ez zen, orduan, hori faltsua izateko aitzaki edo arrazoi izan kasu honetan ere) eta, gaineratu zuten Deidre honen oso antzekoak diren izenak ere badirela inskripzio latinoetan, Dendre eta Dedre, esate baterako. “Secuano”. Oso harrigarria, ezinezkoa ez bada ere, Velázquez-endako eta Sequano beharko lukeela zioen. Thomson-ek ohikoa dela esaten du eta Sicuani, Secuanus eta Secuan inskripzioak erakutsi zituen. “Ioshe”, “Ieshu”. Gorrochategui-k eta

Velázquez-ek ezinezkoa dela tarteko /h/ hori agertzea /s/ baten ondoren. Thomson-ek ondorengoak erakusten ditu: Pascasha Pascasa-ren ordez, Caeshia Caesia-gatik eta Proshodus Prosodus beharrean. “Pather”. Ezinezkoa /th/ taldea Velázquez, Ciprés eta Santos Yanguas-en arabera. Eta, atzera berriz Thomson-ek: virthus (15 aldiz), thurarius (10 aldiz), centhurio (3 aldiz), Catho (2 aldiz), Thullius (2 aldiz), mather, cesthula, Festhiva, Fausthinus, Patherio, Arthemisia, Arthemius, Arthemis edo Arthemon. “Z”. Ezinezkoa grezieratik kanpoko hizkuntzetan XV. mendea arte gutxienik aipatu kontsonantea agertzea, ez balitz aipatu hizkuntzatik hartutako hitzak erabiltzerakoan, Gorrochategui eta Joseba Lakarraren arabera (EHUko Euskararen Historia eta Euskararen Gramatika Historikoaren katedraduna). Zer esan, orduan, Donemiliagako “izioqui dugu” edo “guc ajutu ez dugu” horiei buruz? Eta horrela, bata bestearen atzetik, grafitoak faltsutako emateko “arrazoi” guztiak bertan behera utzirik Thomson-ek. Gure Euskal Herri “santu” honetan, eliza jarraitzaileen kopurua agortzen ari den garaian, hain zuzen ere, “pontifizeak” sortu zaizkigu, eta gainerako euskaldunok, “Pontifex eta dogma” lemapean, berdin alderdi konfesionalekoak nola ez-konfesionalekoak edo ateoak ere, “pontifizeen” esanetara edo, gutxienik, haien dogmak eztabaidatzeko asmo txikienik bera ere gabe, interesaturik, beldurturik, uzkururik, akonplejaturik... isilpean amen esaten ari gatzazkie pontifizeei. Amen esan diete Euskal Herriko erakunde “ofizial” gehienek Iruña-Veleian agertutako ostrakak faltsutuak izan direla esan dutenei. Amen, orokorrean, hauei Euskal Herriko egunkariak eta bereziki tematurik, grafitoak faltsuak direla erakutsi nahian,

kazetariren bat ere. Amen euskal sindikatu eta alderdi politikoen. Amen ere bai esaten ari zaizkie euskara helburu duten hainbat eta hainbat erakunde. Eta amen interesatu berezia, azkenik, EHUk, ostraken afera sortu zenetik berak lortu baitu aztarnategia kudeatzeko ardura, honek dakartzan ondorio guztiekin (ganbela, teoriak...). Euskal hizkuntzalaritza “ofiziala” kolonizatua dagoela irakurtzen nuen lehengo batean eta bistan da hori pentsatzeko arrazoirik ez dela falta. Zergatik ez dakigu oraindik benetakoak edo faltsuak diren aipatu grafitoak? Nola da posible, azken boladan Euskal Herriari agertzen ari diren Paleolitoko aroko aztarna arkeologikoak horren azkar datatu eta benetako onartuak izatea eta behintzat hamar aldiz gutxiagoko antzinatasuna izan dezaketen ostrakak eta hauetako grafitoak aldiz ez? Zein da ezberdintasuna? Aztarna arkeologikoen ez dutela kolokan jartzen aurretiazko inolako teoriarik? Eta, oinezko edo gainerako euskaldunok, zeren zain gaude? Akaso uste dugu grafitoak aurkitu zituzten arkeologoen aurkako epaiketan argituko digula faltsuak edo benetakoak diren epaileak? Bizi dugun garai honen noraezaren paradigmatako har daiteke Iruña-Veleiaren kasua. Eta honen guztiaren ondorioa, euskaldunok, masa akritikoa bihurturik, bitartean, ez dakigula nora jo. Euskararen historiaren ikuspegitik horrelako garrantzia duen aurkikuntza baten benekotasuna argitzea edo ez berdin bazaigu, orduan, ez dugu merezi XXI. mendeko euskaldunok Iruña-Veleia. Ez da zalantzarik, ez zutela horrela jokatu XX. mendeko euskaldunok, diktaduraren unerik gordinenean, euskararen iraupenari norberaren txokoetan eutsi soilik ez eta bere gizarteratzeari ekin ziotenean hezkuntza mundura zabalduz klandestinitatean, esate baterako.



ARTXIBOA

M-8rako emakumeen obrak

Emakumeen Egunean, Arbizuko Udalak erakusketa jarri nahi du udaletxeko batzar aretoan. Emakumeak gaia hartuta, erakusketa berezia antolatu nahi dute: Arbizuko emakumeak egindako artelanak bildu nahi dituzte. Parte hartu nahi dutenek otsailaren 15a baino lehen kultura@arbizu.eus helbidean edo liburutegian jakinarazi. Hilaren 22rako jasoko dituzte.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

BEHERAPENAK!!! Oinarrizkoak berritu behar ditugu...



Beharapenak amaitzear daude, baina oraindik aukera paregabeak aurki ditzakegu. Merkealdiak ezin hobeak dira oinarrizkoak edo basikoak berritzeko, jarraian azalduko dut zein diren niretzat oinarrizkoak, baita gizonezkoendako ere:

-Praka beltzak, gizon eta emakumezkoendako, hauek estilo ezberdinetan izan daitezke: estuak, zuzenak, kanpanoloak....

-Bakeroak: Beharrezkoak. Koloreak ez du gehiegi axola, ahala ere konbinatzeko errazena urdina da, urdin iluna.

-Gona edo soineko beltza. Azken urte hauetan larrua modan jarri da, baina nahi den estiloan eros daiteke: Praka beltzen antzera, edozer gauzarekin konbinatu daiteke.

-Bota beltza planoak. Larruzkoak badira hobe, euri

egunetan ez zaigu edonola hautsiko. Zergatik beltzak? Gehienetan praka edo galtza beltzak daramazkigu, eta zapata beltza eramaten badugu, optikoki ez digu hanka moztuko, eta hanka luzeagoa dugula ikusiko da.

-Nik beti gomendatzen dut takoizko botin batzuk gure armairuan. Takoiekin altuago ikusteaz gain, liraintasun puntua ere ematen diogu gure egunerokotasunari.

-Aurtengo negua gogorra izaten ari da, eta arropa asko jantzi behar dugu. Hori dela eta, artilezko jertse liso bat aukera bikaina da.

-Beroki klasiko bat, "oihalepañozkoa". Ehun honek edozein egoeratarako balio du eta beroa da. Kolore erabilgarrienak: beltza, grisa edo marroia.

-Lumaduna ere, ezin dugu armairutik kendu, aukera beroena eta erosoa da.

-Ezin ditugu ahaztu eskularruak, lepokoa eta txanoa, ilea zikindu arren. burua beroa dagoen heinean, gorpua ere bero.

Sakana Zart bardo taldea etxean kantari ariko da

Bardoak 2018ren barruan, hiruna kidez osatutako taldekako bertso-saioa jokatuko da Lakuntzako Sorginak tabernan gaur, 20:00etan. Joan den ostiralean ibarreko beste taldea, Sakana Zirt, Beran aritu zen, baina ezin izan zuen punturik urratu

LAKUNTZA

Nafarroako taldekako bertso ekimena, Bardoak 2018, gaur ibarrera iritsiko da, Lakuntzara zehazki. Sorgiñak tabernan, 20:00etatik aurrera, Sakana Zart eta Baztan-Malerrekako Addams familia taldeak bertso saioan neurtuko dira. Iker Gorosterrazu Elizagoien, Amaia Elizagoien Varela, Egoitz Gorosterrazu Elizagoien eta Alazne Untxalo Erregerena dira talde bisitaria osatzen duten bertsolariak. Parean izanen dituzte Josema Leitzaz Razkin, Joseba Andoni Beltza Bengoetxea, Ekain Alegre Gil eta Saats Karasatorre Martinez bertsolari sakandarrak. Saioa Jon Arratibel Irurtzunek aurkeztuko du.

Bardoak 2018 bertso ekimeneko epaile lana lehen fasean beste multzo batean ari den talde bateko bi kide eta publikoko bost pertsona izanen dira. Horrela erabakiko da saioko talde onena zein izan den.



Sakana Zirtekoak Beran. NAF. BERTS ELK.

Bardoak Beratik punturik gabe Ostiralean Berako Katakua tabernan hasi zen Bardoak 2018, Nafarroako taldekako bertso ekimena. Herriko Ibardin: hiru eta lau dira zazpi taldearekin Sakana Zirt neurtu zen. Edo

bestela esanda, batetik, Patxi Castillo Graziarena, Aitor Elexpuru Egaña eta Julen Zelaieta Iriarte eta, bestetik, Idoia Granizo Uribarrena, Eneko Lazkoz Martinez eta Unai Artieda Estanga. Ariketa guztiak eginda, epaile lanak egin zuten beste multzo bateko talde bateko bi kidek eta publikoko bost entzuleren botoa herriko taldearendako izan zen. Haiek eskuratu zuten aurreneko puntua.

Bardoak 2018k ostiralean izanen du segida eta ekimenean parte hartzen duen ibarreko beste taldea sartuko da lehian. Lakuntzako Sorgiñak tabernan, 20:00etan, Sakana Zart eta Addams familia taldeak bertso saioan neurtuko dira.

Txapelketako aurreneko fasean parte hartzen duten taldeek saio bakoitzean 12 ariketa egin behar dituzte, hainbat neurritan, beste taldekoekin binaka edo taldea elkarrekin. Azken agurra ez beste guztiak balio du.

Iortia kultur guneak Altsasuko ihote segizioa hartu du

Erakusketa astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara dago ikusgai

ALTSASU

Ereintza, Juan Tranposoa, maskarita, sorginak, akerra, momotxorroak... Bat berak ere ez zuen hutsik egin nahi izan Altsasuko Ihote Batzordeak antolatutako erakusketaren aurkezpenean. Iortia kultur guneko erakusketan gelan bildu zen jendeari, haurrak batez ere, inauteria lurra esnatzeko deia azaldu zieten guztien artean, kontakizun bat tarteko.

Mustutze ekitaldiaren ondoren Altsasuko ikastetxeetako ikasleek egindako muralak, marrazkiak

edota eskulanak ikusteko aukera dago. Horrekin batera, ihote segizioa pertsonaien jantziak dituzten manikiak ere badaude. Erakusketa asteartean mustuzen eta hilaren 18ra arte dago.



Inauterietako pertsonaiak banaka agertu ziren publikoaren aurrean.



Laura Zubieta Sesma, Uharte Arakilgo kintoa.

“Anaia zaharra kinto izan zenetik, beti nahi izan dut kinto izan”

Kinto ospakizunak batean eta bestean izanen dira asteburu honetan Sakanan. Uharte Arakilen ere bai. Baina aurtengo bost kintoetatik bakarria animatuko da festa ospatzera, gure elkarrizketatua. Bera animoso dago eta uharterrei eskuzabalak izateko eskatu die.

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL

1 Kinto ospakizunetarako prest?

Bai. Gogoz nago. Guztia presatzen ari naiz. Egia esan, nik dena prestatu behar izan dut,

dena enkargatu... baina, gogo biziz nago!

2 Zenbat zarete aurtengo kintan?

Bost, lau mutil eta ni izango gara.

3 Baina zuk bakarrik parte hartuko duzu, ezta?

Bai, besteek ikasketengatik ezin dute edo ez dute gogorik. Egia esan, bakarrik egitearen lotsa aipatu zidaten.

4 Zerk animatu zaitu zu ospakizunean parte hartzera?

Anaia zaharra kinto izan zenetik beti nahi izan dut kinto izan. Nire kintoak ez zutela eginen ikusi nuenean pentsatu nuen: haiek ez dutelako nahi ni ez naiz kinto ospakizunik gabe geldituko. Ez dut asko behar parranda egiteko, berez, hori baita ia-ia kinto ospakizuna: herrian juergan, gustura egun batzuk egotea.

5 Aurtengo kinta bakarria bai, baina zurekin kinto gazteak eta kinto zaharra ibiliko dira?

Herri txikia izatean kinto gazte eta zaharrak elkartzen dira, bai. Baina ez da ezer finkoa. Azkenean, mundu guztiak laguntzen zaitu. Hala ibiltzen dira etxez etxe eskean, nahiz eta gero etxeetara ez sartu. Hori bai, egun batean urteko kintoak, joan den urteko eta heldu den urteko kintoekin afaltzen dugu.

6 Beste herrietan kintoak base-rritarrez jantzita ibiltzen dira. Uhartan?

Gu ileordeekin, betaurrekoekin... mozorrotzen gara. Ez dago jantzi zehatzik. Eta hotzetik ahalik eta babestuen, hori bai.

7 Festetan ez da musikarik falta, zure aldamenean egonen da?

Akordeoilari bat eta trikitilari bat izanen dira nirekin. Ostegun arratsaldean aurrena bakarrik. Baina jendeak kalejiran parte hartzen du.

8 Oker ez banago udalak utzitako lokal batean lo egiten duzue egun hauetan, ezta?

Bai, kintoak hiru egunak elkarrekin egon eta elkarrekin lo

egoteko uzten dute. Baina bakarrik nagoenez, ez dut tokia eskatu. Ez dut horren guztiaren ardura nik bakarrik hartu nahi.

9 Kinto ospakizunak noiz hasten dira?

Atzo eguerdi aurretik atera nintzen, pote batzuk hartu eta gosaltzeko. Bazkaldu ondoren baserrietan kinto eskea egin nuen. Handik Itsesi auzora jo nuen eskean segitzeko. Ahalik eta gehien egin nuen, afaltzeko garaia iritsi zen arte. Ematen dutenei, esker onez zahatoa eta pastak eskainiko diet. Uharterre gehiagorekin afaldu eta gero taberna batean parranda egin genuen.

10 Ostiralerako plana zein da?

Ez oso berandu esnatu, gosaldutako kinto-eskeari helduko diot. Itsesi auzoko etxeren bat geldituz gero handik pasa eta gero industrialdera joko dut. Han ere baserri bat dago. Eta hangoa egin eta gero Katangara, geltoki auzora, eskatzera joanen naiz. Goizez ahalik eta etxe gehien pasa nahiko nituzke. Bazkaldu ondoren kinto-eskea utzi dugun tokian hartu eta herri-gunerantz hurbilduko gara pixkanaka. Herrian bihar goizean eskatuko dugu. Gaur pintxo potea denez kalean jende gehiago egoten da eta giro gehiago egonen da. Ordu txikiak arte parranda eginen dugu.

11 Larunbatean?

Goizean herri guztian barna kinto-eskea eginen dugu. Ihoetako herri bazkarian giro ederra egonen da. Eta goizean etxeren batetik pasa ez banaiz, arratsaldeko ihote-kalejiraren aurretik pasako nintzateke. Gero gozatzeraz.

**Kartelak
Eskuorriak
Pegatinak
Publizitatea
Kamisetak
Aldizkariak**

948 564 275
Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

